



80 egunean Zedarri bat euskarazko zinemagintzan

- **Argentinako haur desagertuak**

ADN frogak benetako gurasoak agertu dizkio Martin Amarillari

- **Bernat Joan i Mari**

Kataluniako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiari elkarrizketa

- **Euskal Herriko monetak**

Ez da existitzen betiereko dibisarik

- **Jesus Uzkudun, amiantoaz:**

«Epaileek martxa horretan jarraitzen badute, senideak haien aurka mobilizatuko dira»



ITXARO BORDA

«Idazkera literarioa gero eta lauagoa da, baina irakurlegoa ere horrela formateatuta dago»

kirolaz ba**da**kit



Azpeitiarra, 2004an egin
zuen debuta, atzelaria da.
Zein da?

- Mikel Labaka
- Mikel Aranburu
- Ronaldinho

**Kirolzale
amorratua zarela
erakusteko prest?**

Hemen dituzu
1.500 galdera txartel
eta CD-ROMean.

**7 urtetik
gorakoentzat**

PREZIOA

15€

**ARGIAren
harpidedunek
-0%15**



ESKAERAK
943 37 15 45
www.argia.com
denda@argia.com



- 4 Deabruaren abokatua: Lourdes Fernandez.**
Aritz Galarraga.

Pertsonaia

- 10 Itxaro Borda: "Betidanik idatzi dut lesbiana izateaz".** Uxue Alberdi.

Gaiak

- 15 Martin Amarilla, Argentinako desagertua: "Gogorrena da gurasoak ezagutzen ari zaren aldi berean haiengatik dolu egitea".**
Gorka Berasategi.

Iritziak

- 18 Ttakun (h)errenka. Atopiaz.** Ixiar Rozas.
19 Gora Pro Nobis. Asisko Urmeneta.
20 Hamaikagarren mezua. Rosa Maria Martin Sabaris.
Tori loreak. Castillo Suarez.
21 Irabazleen ausardiaz. Gotzon Barandiaran Arteaga.
Legedia. Joxemari Ostolaza.
22 Bertso berriak. Mexiko, Detaileen Festa.
Xabier Paya.

Erdiko kaiera

- 27 Beti geratuko zaigu Zoragarrieta.** Joxerra Garzia.
28 Liburuak. Xabier Etxaniz Erle.
29 Diskoak. Iker Barandiaran.
30 Ezpalak. Jon Torner.
31 Abarrak. Mikel Garcia.
32 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
34 Zientzia eta teknologia. Joxerra Aizpurua.
35 Landareak. Jakoba Errekondo.
36 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 42 Bernat Joan i Mari, Kataluniako Hizkuntza Politikako idazkari nagusia: "Borondatearen esku uzten bada, hizkuntzari biziraupena ukatzen zaio".**
Aritz Galarraga.
46 Bero-beroa. Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.
48 Net Hurbil. Munduko Kopa: Hegoafrikak 1, FIFAk 3.
Pello Zubiria.

5 | Moneta Euskal Herrian | Urko Apaolaza

Euroguneko hainbat estaturen larrialdia aitzakia hartuta, neurri gogorrek hartuko dituzte herritarren bizkar. Aldi berean, larrialdi horrek agerian utzi du euroaren ahultasuna. Euroaren aurretik, zenbat dibisa klase ibili ote ditugu euskaldunok esku artean? Haien ibilbidea ikustea baliagarri zaigu Moneta Bakarrarekin gertatuko denaz jakiteko.



37 | Milaka langile amiantoaren menpe | Urko Apaolaza/Daniel Udaltz

50 | Azkena | Baleren Bakaikoa Azurmendi

23 | J. Garaño, J.M. Goenaga | Mikel Garcia

Pelikula bera bi pertsonen artean zuzentzea ez da lan erraza, baina positiboa da ondorioa, bi buruk batek baino ekarpen handiagoa egin dezaketelako. *80 egunean* filmaz arduratu diren bi buruak elkarriketatu ditugu, proiektuaren nondik norakoak argitzeko.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estibx Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko parteidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea. Azaleko argazkiak: Moriarti Produzioak/Dani Blanco.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua





“Arte garaikidea ez da nahitaezkoa”

Lourdes Fernandez | Feriante ohia

ARCO periyaren buru zeramatzan lau urte.
Etsi berri du.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: IFEMA

Krisi garaian, kultura erosteari uzten omen zaio lehenik.

Pena da, barneratuago beharko genuke kultura, krisiak hain eragin handia izan ez dezan. Baina ez da hala. Arte garaikidearen arazoa haxe duzu: ez dela nahitaezko ondasuna.

Apeta burgesa?

Kultura, eta artea partikularki, behararekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik erosten dira, ez bada ezagutza eta pasioarengatik. Bai eta inbertsio produktu gisa duten baloreagatik ere.

Horregatik 1,6 milioi euro Bacon baten truke!

Merkatuaren legea da hori. Eskaintza eta eskaria.

Hau da, artean denak balio duela, baina denak ez duela balio berdin...

Ez nuke hori esango. Denak ez du balio berdin eta denak ez du balio. Pentsalari hark zioen bezala, bizitza artea baino garrantzitsuagoa dela erakusten digun guztia da artea.

Nahiz eta ezer ulertu ez.

Ulertzeak ezagutzea eskatzen du. Eta ezagutzak laguntzen digu arte garaikidearen zirrikiak hobeki antzematen eta harekin elkarbizitzaren.

Kexu gara gero, artea elitista dela...

Artea ez da elitista. Gutxiengo batentzako jarduna bai, baina ez elitearentzat, artera gerturatu eta berau ulertu eta partekatu nahi duen ororentzat baizik. Jende gehiago hurbilduko balitz, gehiago handiarentzat litzateke artea. Baina garaikidetasunak berezkoa duenez zailtasuna, elitista dirudi.

Merkatu batek, artearena izan edo beste zer-baitena, badakigu zertarako balio duen. Baina arteak?

Bizitzeko. Interpretazio erabat desberdinetatik errealitatera gerturatzeko. Eta negozio sistema bat sortzeko, noski, kulturako gainontzeko adierazpenek (liburuak, zinemak, antzerkiak) egiten duten bezala.

Euskal artista bat aipatzeko eskatu eta Oteiza esango dute gehienek, Chillida Vocentoko irakurleek.

Oteiza eta Chillida baitira euskal artista handienak, hain zuzen. Haiek sortu zuten egoera berdingabea herri honetan, eztabaida ezina da hori.

Eta kito, hor bukatzen da ipuina?

Ez ba, artista ugari dago. Bere burua saltzen ez dakiten arren —sortzaileak dira nagusiki—, saltzen dute beren lana eta obra. Eta behar ditugu. Ez ahantzi: artistarik gabe ez legoke artetik. ■

Denarioa, santxetea, libera, pezeta, euroa...

Ez da existitzen betiereko dibisarik

Metal gogorrez egina zegoela uste zen, baina euroa jogurta bezain xehea dela ikusi dugu orain, eta Alemaniak ez ditu greziarrek hautsitako platerak ordaindu nahi. Moneta Bakarra arriskuan dago, baina zenbaiten dramatismoa erlatibizatu egin behar da. Azken batean inoiz ez da betiko txanponik izan, gure curriculum numismatiko luzea irakurtzea nahikoa da horretaz jabetzeko.

URKO APAOLAZA

FRANCFURT, 2010eko apirilaren 8a: Jean Claude Trichet Europako Banku Zentraleko presidentea ziur da Greziak bere zorrak ordaindu ahal izango dituela. Trichetek ez du arriskuan ikusten eurogunea, ezta euroa ere. Baina konfiantza handirik ez dago merkatuetan eta burtsako akzioek behera egiten dute, ez bakarrik Atenasen, baita Parisen, Berlinen eta Londresen ere. Ondorioz Europako dibisa nagusiak balioa galtzen du beste behin: euroa 1,33 dolarretan saltzen da, aurreko egunean baino zentimo erdi merkeago.

Greziako “tragedia” euroaren lehenengo krisia dela diote adituek eta agerian utzi du txanpon hori ez dela hain borobila. 2008an finantza krisia lehertu zenean, eurogunean zeuden herrialdeek lasaitu hasperena egin zuten haien burua Moneta Bakarraren babesean jakinda. Baina banku eta finantza-enpresak bakarrik ez, estatuak ere kiebra

Ezker-eskuin:
Euskadiko
Gobernuak 1937an
kaleratutako pezeta;
Olcarium moneta
aurre-erromatarra
(Nafarroako
Museoa); Felipe
VI.ak jaulkitako
Nafarroako zilarrezko
txanpona
(Nafarroako
Museoa); greziar
drakma garaikidea.

jotzeko arriskuan daudela erakutsi du Greziak, eta Trichetek nahi duena esango du, baina orain badakigu euroa blindatu gabeko moneta dela, lehenago edo beranduago historiara pasako den beste txanpon bat. Zenbat izan ote dira euskaldunok mendeetan zehar eskutik eskura manciatu ditugun sosak? Haiek ere hasieran birbaluatu egin ziren, gero espekulazioa jasan zuten, debaluatu zituzten, eta azkenik, desagertu egin ziren. Agian ahaztu zaigu hain desiraz erabiltzen dugun “diru” hitzak erromatarren *denariusean* duela jatorria eta duela 2.000 urte gure artean zela.

Baskunes: lehenengo txanpon euskalduna?

Aspaldikoa da txapona. Txinan, esaterako, 5.000 urte omen dituzten mesolitikokoak agertu dira, eta K.a. 600. urtean Anatoliako lidiairek beren urre-zilarrezko dibisari lehoi baten burua landu zioten lehen aldiz. Errege eta agintariak laster jabetu



ziren txanpon barruko irudiak zuen garrantziaz eta haien aurpegiak landu arazi zituzten. Alexandro Handia izan zen lehena, eta gaur arte hamaika monarka, enperadore eta diktadorek imitatu dute. Euskal Herriko txanpon zaharrenean –K.a. 150eko erromatar denario bat– ordea, ez da enperadore famaturik ageri, gizon bizardun eta ezezagun baten kope-ta baizik. Baina peza-ren bestaldean izen adierazgarria irakur daiteke: *Baskunes*.

Bilakaera bitxia izan dute *Baskunes* izenaren esanahiaz egin diren teoriek.

XIX. mendean, iberiar grafia oraindik deskodifikatu gabe zegoenean, Aloïs Heiss eta Antonio Delgado aditu prestigiotsuek *Oiasso* portu euskaldunarekin lotu zuten txanpona, bertan irakurtzen zuten ustezko legenda (Iesona) oso antzekoa zelako. Gero, jakin zenean iberiarrez *Baskunes* ipintzen zuela –edo *Baskunes*, beste zenbait kasutan–, Caro Baroja bezalako autodidaktek ezin izan zioten tentazioari eutsi “basko” erroarekin lotzeko. Orain, hizkuntzalariek ia ziurtzat jotzen dute zeltiberiar jatorriko terminoa dela, nahiz eta oraindik ere maiz egiten den foro batzuetan *baskunes*=*vascones* identifikazioa. Dena dela, ez da zalantzarik denario “autoktono” batez ari garela, moneta fabrika non zegoen ez dakigun arren –batzuen ustez Iruñea inguruan zegoen–, *Baskunes* ugari agertu baita euskal lurralde osoan: Tafallan, Vianan, Zangotzan, Iruñean, Gernikan... Bestalde, txanponaren alde batean agertzen den zaldunak (ikusirik irudia) ezpata motza darama eskuan, eta hori ez da batere normala Iberiako beste lekuetan.

Bai txanpon hauek eta bai inguruko beste antzeko asko ere (*Cascaita*, *Bentian*, *Olcairum*...) zeltiberiarren kontrako borroketan sortu ziren, K.a. 150-50 urteetan. Moneta zirkulazioa asko handitu zen garai horretan, erromatarrek mertzenarioei ordaintzeko modu erraza baitzen dirua. Baina K.a. 45ean Julio Zesarrek Mundako bataila odoltsuan Ponpeiori irabazi ondoren, Inperio osoko finantza sistema aldatuko du eta debekatu egingo du moneta lokalak lantzea, gure *Baskunes* denarioak barne. Aurretik, Erromako enperadoreen irudia zeramaten denarioak baino ez ziren egingo *Mare Nostrum*eko lau ertzetan. Beraz, ez da



Baskunes txanponaren bi aldeak: eskuineko aldean “zaldun iberiarra” ageri da ezpata motza eskuan duela, eta “Baskunes” hitza du idatzia azpian grafia iberiarrez.

Iberiar penintsulako erreinu kristauen artean bere moneta emititzen lehena Antso Nagusia nafarra izan zen

egia euroa izan denik Europako lehenengo Moneta Bakarra, bi mila urte lehenagoko aurrekari bat badago: zilarrezko denarioa.

Erromak goia jo zuenean, mota guztietako erakunde kaudimentsuak zeuden hiri eterno-

an: Estatuko Altxorra, dirua jaulkitzeko Moneta Etxea –Juno Moneta izeneko jainkosaren tenplu ondolan zegoen eta hortik “moneta” hitzaren esanahia–, zergak biltzeko Ogasun Ministerioa, *Argentarii* finantza-sozietateak... III. mendetik aurrera, ordea, krisi global batek Inperioren zimendu ekono-

mikoak dardararazi zituen. Zein izan zen orduko “Egonkortasun Plana”? Merkelek eta Sarkozyk greziarrentzat inposatu berri duten austeritate errezetaren antzekoa: petxak igo, soldadak jaitsi, aurrekontua estutu... Administrazio erromatarrek prezioetan eta txanponaren balioan interferitzeak gauzak okerragotu egin zituen. Enperadoreek behin eta berriaz debalatu zuten zilarrezko denarioa urte txirikirik ez emateko –3,9 gramotik 1,7 gramora pasatu zen bi mende eskasean–, harik eta pixkanaka moneta hori merkatutik kanpo geratu zen arte.

Nafarroako Txanpona: Imperatoreen boterearen erakusgarri

Nafarroako Museoa, Iruñeko Santo Domingo kalean, ondare numismatikoko harri garria aurki daiteke: 20.000 txanpon baino gehiago dituzte gordeta. “Gutxienez baditugu munduan bakarrak diren hamar txanpon” dio Francisco Javier Zubiaur bertako goi teknikariak. Dohaintza, erosketa eta, batez ere, aurkikuntzekin gizendu da bilduma. Larrialdi eta gerra garaietan ezezagunek aurreztutako sosak ezkutatzen zituzten –zeukaten urte edo zilar kopuruagatik– eta eraikin zaharretako murru eta zoruetan aurkitu izan dira txanpon horiek. Kasu batzuetan anekdota bitxiak ere suertatu izan dira aurkikuntza horien harira, honela kontatzen du Zubiaurrek: “1999an Nafarroako Gorteetako birrinketa batean langile batzuek urrezko 300 txanponen lotea aurkitu zuten; aurkikuntza isildu eta euren probetxurako saltzea erabaki zuten. Azkenean poliziak esku hartu behar izan zuen eta aurkitzaileei esku-bidez zegokien sari metalikoa ukatu zitzaizen”.



PANORAMIO / MAKO



NAFARROAKO MUSEOA

Erromatar kataklismoaren ondoren diru-fluxua izugarri gutxitu zen Europan, soilik bisigodoek, karolingiarrek eta arabiarrek jaulki zituzten txanponak, kasu batzuetan ez oso praktikoak, urre gehiegi baitzeramaten truke sinpleak egiteko. Iberiar penintsulan, erreinu kristauen artean, moneta propioa emititzen lehena Antso Nagusia (992-1035) nafarra izan zen. Kobre eta zilarrezko aleazioz egindako beiloizko txanpona da errege legendarioak sortutakoa, eta honela jartzen du: *Imperator - Naiara*. Lelo horrek katramila bat baino gehiago sortu izan du adituen artean. Izan ere, zer arrazoi zuen Antso Handiak bere burua enperadore izendatzeko? Zer esanahi du “Naiara” hitzak? Najera? Navarra? Galdera horien atzean soka luzeko eztabaida historio eta politikoa dago.

Hurrengo mendeetan errege nafarrek euren diruak dantzatzeari ekingo diote eta Nafarroako Txanpona deitu izan dena produzituko da Iruñeko Comptoseko Ganberan. XIII. mendeko eraikina zutik dago oraindik eta sortu zeneko funtzio berbera du: Nafarroako finantza publikoak kontrolatzea. Eraikunde hori benetako Kontuen Auzitegi bat zen eta, besteak beste, monetaren “maisuek” eta “gardek” egiten zuten lan bertan. Ezau-

Ezkerreko irudian Iruñean dagoen Comptoseko Ganbera. XIV. mendetik Nafarroako erreinuko politika fiskal eta monetarioaren egoitza izan zen. Eskuinean, Nafarroako Moneta egiteko trokela; tresna horien munduko bilduma baliotsuena dago Nafarroako Musean.

garri askotako txanponak egin ziren hor —*santxeteak* eta *carlinak* dira ezagunenak—, guztiak Nafarroako erregeei lotuak, *Navara*, *Navarre* eta *Navarrorum* hitza zeramatela.

Fernando Katolikoak Nafarroa konkistatu zuenean, bertako txanponaren neurriak Burgosko eta Zaragozako moneta etxeen arauetara egokitu zituen, paritatea lortu nahian. Hala ere, txanponen irudi bereizgarriak —kateak, legenda...— XIX. mendera arte mantendu ziren, Isabel II.ak Espainiako moneta guztiak homogeneizatu zituen arte. Mugaren bestaldean Nafarroako Txanponaren bidea ez da oso ezberdina izango. XVII. mendean errege nafarrak Frantziako errege ere bilakatu zirenean, hexagonoko errege-monetari Nafarroako ikurrak jarri zizkieten. Esaterako, *Le Roi Soleil* edo Luis XIV.a errege absolutistak Nafarroako Txanpona jaulkitzen zuen. Nafarroako azkeneko txapona 1788an produzitu zuten Frantzian, Luis XVI.ari lepoa gillotinez moztu aurretik.

“Hôtel des Monnaies”

Baionako kale berrian edo *Neuve* kalean, turistek Notre Dame elizari egiten diote argazkia, estampa eder hori erraz harrapatu daiteke begi digitalarekin. Baina gutxiak dakite

Irudiak eder, irudimenak plazer



+XO!
haur bilduma berria

www.txalaparta.com



txalaparta

● Euskal Herriko txanponen historia

kale horrek Monnaie ere izena duela eta lau mendez *Hôtel des Monnaies* izeneko eraikin desagertuan milaka libera egin zituztela. Baionakoa moneta arrunta zen, Frantzia osoan barreiatzeko egina, eta ikur bereizgarri bakarra zuen: “L” hizkia. Hala ere, dirugin maisuek behin baino gehiagotan egin zuten modua kaukoari marka “sekretuak” eranstea, orain zirkulu txiki bat, orain letra arraro bat... Baionako dirugileak gremio pribilegiatua eta itxia ziren, zelo handiz gordeztzen zituzten euren eskubide eta ohiturak. 1840 urtean *Neuve* kaleko moneta etxea desagertu egin zen eta geroztik ez da txanpon gehiago egin Lapurdiko hiriburuan, baina bertako lan-tresnak oraindik ikusgai daude Euskal Museon.

Ontzako txanpon faltsutzaileak

Goizuetan bada gizon bat / deitzen zaió Trabuko... hasten da kanta anonimoa. Patziku Perurenaren esanetan 1748koak behar dute bertsoek eta Berdabioko txanpon faltsutzaile batenak dira. Ezkutuko meatze bateko urrearekin txintxin faltsua egin eta Frantziara pasatzen zuten berak eta Trabuko izeneko lagun batek. Baina iruzurgilea kartzelan sartu zuten lagun bihotz faltsuak salatuta; hortik bertsoen arranga.

Txanpona sortu zenetik existitzen da faltsifikazioa, eta txanponak ez faltsutzeko moldeak eta erak asmatu ahala sortu ziren faltsutzeak ere, gaur egun bezalaxe. Aberasteko modu erraza izanik, tentazio handia zen diruarekin marro egitea, edota diru faltsua mugaz bi aldetara garraiatzea. Asko dira artxiboetan aurki daitezkeen adibideak: Durangoko merinoak 1617an herriko alkaterean eta beste hainbaten kontra egingo du “Frantziako moneta faltsua sartu, erabili eta berarekin negoziatzeagatik”; 1669an Juan Uriarte izeneko “frantses” bat Lekeitioko kartzelan zen gezurrezko moneta egiteagatik; bi urte geroago fiskalak auzitan sartuko ditu Barakaldoko Kontxesi Ibarra eta Abandoko Marikruz Azkoeta moneta faltsua egiten “konplize” izateagatik; 1800ean Legutioko berunezko meatze baten jabea epaitegietan aurkituko da gezurrezko txanponak egiten zituela salatuta...

Nire buruaz ez naiz oroitzen / zeren ez naizen bakarra... dio Berdabiokoak. Izan ere, bertsoetako historia xarmangarria da, baina faltsutzaile presoaren egoera oso ohikoa zen garai bateko Euskal Herrian.



Karlistek Lizarran emititutako dirubonboa. Gerra amaitzean bertan jarritako kopurua ordainduko zitzaizela ziurtatzen zioten dokumentuaren eramaileari; modu horretan, inoiz ordaindu gabeko “zor publiko” handia egin zuen administrazio karlistak.

Oñatiko duroa

“Karlistek, beren jendeen artean metalikoa falta dela-eta, txanpon fabrika eraiki dute Oñatin, eta erregegaiaren irudia burdinan lantzen hasi dira” diote Madrilgo egunkariek. “Esaten dute, fakziosoak barkuak lotzeko zituzten kainoi zahar guztiak urtzen ari direla kostako herrietako kaltetan, baita kanpaiak eta eskura dituzten kobrezko objektu guztiak ere” dio *El Cronistak* 1876ko urtarrilaren 16an. Bigarren Gerra Karlistan Carlos Mari Borbon, “Karlos VII.”aren erregetza defendatzen zutenek benetako Estatu Karlista paraleloa asmatu zuten: legeak, auzitegiak, unibertsitatea, administrazioa... eta Oñati zen horren guztiaren hiriburuetako bat. Jakina, dibisa

propioa ere kaleratu zuten. Horretarako, Errege Moneta Etxea eraiki zuten Oñatiko errepide bazter batean, Cornelio Garay-ren pospolo lantegi ezaguna zegoen lekuan.

Oñatiko txanpona berezia zen oso. 25 gramoko kobre eta zilarrezkoa zen, baina bere soinean ez zuen balorerik jartzen, soilik honako hau: *Real Casa de Moneda - Oñati - Octubre 1875*. Dena den, guztiek zekiten txanponak bost pezeta balio zuela, horregatik deitzen zitzaion “Oñatiko duroa”. Hala ere, dibisa honen fluxua hutsaren hutsean geratu zen, soilik miliziarren artean ibili baitzen, baina ez hainbeste diru bezala, baizik eta medaila moduan. Hain dira arraroak holako medailak, horietako batek numismatikaren merkatuan 1.000 eta 3.000 euro artean kosta dezakeela, adituen arabera.

Oñatiko txanponaz gain, karlistek 5 eta 10 zentimoko sosa jaulki zituzten Bruselan Carlos Maria erregegaiaren irudiarekin eta horiek zertxobait gehiago zirkulatu zuten. Dena den, 1876an karlisten porrotarekin bukatu ziren abentura monetarioak. Urte horretako martxoaren 3an gudaroste liberalak Oñatin sartu zirenean, lehenengo gauza izan zen Moneta Etxea txikitzea. Gaur egun Oñatin existitzen da Ceca izeneko numismatika elkarte bat eta besteak beste hainbat txanpon editatu ditu azkeneko urteetan, horietako bat Oñatiko hogerleko ezagunaren kopia da.

Euzkadiko pezetak

XX. mende hasieran Hego Euskal Herriko jendartea ohituta zegoen Madrilan eta Sevillan soilik egindako txakur-dirua (pezetako 5 eta 10 zentimo) eta errealeko koartxoak (pezetako 25 zentimo) edukitzen esku artean, gutxiak zuten 1868an ofizialdutako pezetako osoak

Euroa eta langileak, AAA *ranting*-aren morroi

Sortu eta hamar urte geroago, bistan da euroa ez dagoela garairik onenean. Moneta Batasunean sartzeko, hainbat baldintza jarri ziren: defizita %3tik ez igotzea eta zor publikoa ez izatea BPGaren %60 baino gehiago, besteak beste. Baina hori lortzeko eta kontrolatzeko modu bakarra herrialdeen arteko konfiantza izan da. Beraz, moneta bakarra bai, baina ekonomia bakarra ez. Malabarismo zaila. Greziak gezurra esan zuen defizitaren arloan, eta beste herrialde askotan ere “praktika on” horiek ez dira betetzen ari —ez da ahaztu behar Alemaniak berak zailtasunak izan zituela duela urte batzuk—. Orain, asko dira finantza erregulazio komun bat eskatzen dutenak, eta Ecofin erakundeak herrialdeetako aurrekontuak gainbegira ditzala hauek onartuak izan baino lehen.

Momentu honetan Greziak 300.000 milioi euroko zor publikoa du eta defizita %13,6an kokatzen da herrialde heleniarrean. Kalifikazio agentziek espekulazioaren mai-



U.A.

lan utzi dute Greziako kaudimena (BB+) eta bere bonoak zaborraren pare daude. Baina ez da euroguneko herrialde bakarra hanka zepoan duena: duela gutxi Espainia AA mailara jaitsi du S&P agentziak, eta Portugal edo Italia okerrago daude oraindik. Agentzia horien boterea nabarmena da, inbertitzailak espantatu edo erakartzeko ahalmena baitute, horrek ekar leza-keen guztiarekin. Greziaren erreska-teak 110.000 milioi euro kostako omen du, baina horretarako, defizita jaitsi eta 30.000 milioi euro aurrezteko neurri gogorrak inposatu dizkiote Europar Batasunak eta Nazioarteko Diru Funttsak, langileek jasango dituzten neurriak, hain zuzen ere. Badirudi euroaren prestigioa agentzia “independentek” ematen duten kalifikazioaren menpe dagoela, eta euroguneko herrialdeek errezeta ahalik etaneoliberalenak hartuko dituztela prestigio hori altu mantentzeko, langileen bizkar bada ere.

maneiatzeko zortea. Dena den, inflazioak goraka egin ahala, pezetaren erabilera ugaltu egin zen, nahiz eta familietan dirua errealetan kontatzen jarraitu zuten —orain gutxi arte irau duen ohitura izan da—.

1936ko Gerraren ondorioz borrokan zebiltzan alde biek eta gobernu autonomoek euren finantza sistema autarkikoa sortu behar izan zuten, eta Euskal Herrian, bertako pezeta fluktuatzeko saiakera egin zen Jose Antonio Agirre-ren eskutik. 1937an ekin zion Euskadiko Gobernuak paperezko diru-taloiak, bonoak eta txanponak egiteari. Txanponen kasuan, ez ziren Euskal Herrian egin —hemen egin ziren bakarrak Asturias eta Santanderreko Kontseiluentzat Gernikan eta Bilbon jaulkitako pezeta-ko zentimo gutxi batzuk izan ziren—, Bruselan baizik. Zazpi milioi pezeta txanpon egin ziren

guztira *Gobierno de Euzkadi* legendarekin, eta beste sei milioi bi pezetakoak. Heliodoro de la Torre Ogasun sailburua izan zen finantza egitura horren guztiaren egilea eta zirkulatu zuten unitatei “eliodoroak” ere deitu omen zitzairen.

Gaur, oso gutxi dira Francoren irudirik ez zeramaten diktadura aurreko txanponak ezagutu zituzten euskal herritarrek; gero eta gutxiago ere De Gaulleren aurreko libera zaharrak ezagutu dituztenak. Aldiz, hazten ari dira euroa besterik erabili ez duten haurrak. “Nik ere pezeta/libera ezagutu nuen”, esango dugu laster. Esango al dute inoiz gure ondorengoei, “nik ere euroa ezagutu nuen”? ■

argia.com Francisco Javier Zubiaurre
Nafarroako Museoko numismatika teknikariari egindako elkarrizketa irakurgai.

ZIO
ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



gure
arte
euskaraz

Universidad
del País Vasco

BFA
DFB

BIZKAIA
BIZIA

Itxaro Borda

«Betidanik idatzi dut lesbiana izateaz»

Muga bat ikusten duen bakoitzean esaten du “pasako gara”.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Noiz bilakatu zen Bernardette Itxaro, eta zergatik?

Egia, Itxaro pseudonimoa da, erdi pseudonimoa. Duela asko, 14 urtetan hasi nintzen *Herrian* bertsoak publikatzen eta pixka bat

beldur nintzen familiak zer errango zuen. Gainera, konturatu nintzen euskaldun musikalitateko izen bat behar nuela, eta justu garai hartan bazen hemen Baionan erakusketa egiten zuen pintore bat, bizkaitarra, Itxaro Men-



txaka deitzen zena. Beraz, haren izena hartu, ene deitura ofiziala, biak lotu eta, hara! Betidanik izenpetu ditut testuak Itxaro Borda izenarekin, eta orain gehienbat ezagutzen naute jendeek Itxaro deitzen naute, familiak salbu, bistan da, eta lankideek, haiek Bebe edo Bernardette deitzen didate.

Noiz erabaki zenuen idazle izatea?

Aspaldi. Idazten ikasi bezain laster testu txikiak idazten nituen frantsesez, 9 urtetan-edo. Gero, emeki-emeki, ene haurtzaroko hizkuntza berriz eskuratu eta orduan hasi nintzen, 12 urtetan edo, euskaraz idazten, alfabetatzen, literaturaz eta abar ikasten. Oso gazterik erabaki nuen idazle izatea eta iruditzen zait ene bizitza idaztea baizik ez dela izan, ez dudala beste gauza baliosik egin.

Nolakoa zen idazten hasi zen Bernardette haurra?

Oso bakartia, oso isila, oso herabea, hitz egitea maite ez zuena, eta denbora irakurtzen pasatzen zuena etxean lanetik edo eskolatik momentu libre bat bazenean. Oso introbertua erran nezake, oraindik ere hala naiz, nahiz eta herabetasunari buruz, jendearekiko belurrari buruz indar bat egin dudana eta lortzen dudana besteekin komunikatzea. Uste dut idatzi ez banu gorputz eta arima hondoratu nintzela, idaztea betidanik izan da, sekretuan edo agerian, izateko modu bat enetzat, besteei buruz izateko modu bat, eta neroni buruz izateko modu bat ere bai. Hara, bi oinak lurrean eta lurra paperean.

Zure hasierako lanak lurperatu egin omen zenuen, literalki.

Bai, krisi bat ukan nuen eta, egia, lurperatu egin nituen ene kaiera zaharrak, beharbada inkontzienteki beste modu batez idatzi nahi nuelako, beste bide batzuk jorratuz. Suizidio

metaforiko bat izan zen, ene gazte denbora guztia ideia horrekin pasatu dudala uste baitut. Beharbada laguntza psikologikoa behar nuen idazle ez bilakatzeko. Baina idaztea bera izan da laguntza; ez hondoratzeko idaztea.

Bertsotan ere egiten zenuen?

Nik bertsoak idazten nituen gehienbat, kantatu ere bai, baina ez ausart, beti nire herabekierarengatik. Egia da garai haietan, 1970eko hamarkada hartan ez zela emazterik ez neskarik bertso munduan, eta beraz, idatziz bai, Marijan Minaberriek ere egiten zituen *Herrian* bertsoak nik bezala, baina plazetan oso laster harrapatzen genituen halako belarrondoko batzuk, gogorak, eta uste dut batzuetan belarrondoko haiek umiliatzaileak zirela. Beharbada, ez nahita, beharbada irri egiteko, baina bere burua mundu honetan aurrera atera nahi duenarentzat umiliatzaileak suertatzen dira halako belarrondokoak, eta enetako uste dut hala gertatu zela. Eta gero, energia asko behar nuen jendearen aitzinean agertzeko, eta hori ezinezkoa zen, errazago da bakar tasunean idaztea. Baina beti gustatzen zait bertsoak entzutea, bertsoak idaztea, bertso moduan idaztea eta batzuetan bertsoak kantatzea ere bai, kiskun-kaskun.

12 urterekin berreskuratu zenuen euskara, eta geroztik euskaraz idatzi duzu. Irakurri dizut: "Luzaz pentsatu dut urgentziaz idazten nuela, bihar bertan hizkuntzarekin batera desagertuko banintza bezala".

6 urtera arte euskaraz baizik ez nintzen ari, urte batez ikasi dugu frantsesa eta 12 urtetan euskaraz analfabetoak ginen anaia eta biok. Horregatik badakit egin diguten gaitza oso latza izan dela, indioei bezala egin digutela oso denbora laburrean, eta hori nik ez diet barkatzen. Euskara berriz errekuiperatu dudanean idatzi dut, gramatika ikasi, literatura ikasi, eta enetzat hori da ene konpromisoa hizkuntzarekin eta munduarekin. Eta luzaz horrela idatzi dut, iruditu baitzait beti desagertzen zihoan mundu bateko partaide nintzela, barnealdeko laborarien mundu horretakoa, eta irudipen hori areagotu zait gurasoak galdu ditugunean. Amadu Hampate Ba idazle maliarrak erraten du adineko batzuk hiltzen direlarik bibliotekak direla galtzen, eta nik zinez, sentimendu hori ukan dut gurasoak galtzean edo herriko zaharrak hiltzean. Guk hizkuntza tribalki errekuiperatu dugu berriz, Borda klanak berriz errekuiperatu du, baina beste guztiek utzi egin dute, ez dute energiarik higatu horretan, gure belaunaldikoek galtzen utzi dute. Ekonomia aldetik eta politika aldetik ere izan dut honda-mendi baten erdian egotearen sentimendua,

Nortasun agiria

Bernardette Borda Baionan sortu zen duela 51 urte. Oragarren hazia, Parisen hezia, Maulen eta Baionan bizitzen ikasia. Txiki-txikitan hasi zen idazten, eta Itxaro Borda erdi-pseudonimoarekin hainbat poema liburu, narrazio eta eleberrirri argitaratu ditu. Euskal kantari askoren abestien letren egilea ere bada. *Maiatz* aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen, eta Mauleko ikastolako gurasoen elkarteko eta Seaskako presidentea 90eko hamarkadan. Gaur egun Baionan bizi da eta postaria da ofizioz. *Bira* zutabea argitaratzen du egunero *Berria* egunkarian.



jakitea minutu bakoitza ez dela izaten ahal aitzinekoa bezalakoa, baina pentsamendu hori pixka bat arindu zait Baionarat bizitzerat etorriz geroztik, ez dut hainbeste sentitzen munduen galera edo erortze hori, ez dut hainbeste sentitzen hemen. Luzaz, idazle izatea halako bekatu edo tatxa bat ukaitea bezala zen enetzat, eta azken urteetan ez da hala. Uste dut idazle izatea, ofizio eta bizio hori ukaitea zorte handia dela, bai enetzat bai eta irakurtzen nautenentzat edo ene olerkiak entzuten dituztenentzat. Momentu honetan idazle izatea zorte handia dela uste dut, eta horrek ematen dit inpresioa idazten dudanean irudikatzen dudan mundua ez dela aldatzen, ez dela erortzen, ez dela hondatzen, ez dela higatzen, ez dela usteltzen. Idazten dudanean berdin zait irakurtzea estatistika bat Iparraldean euskararen galera aipatzen duena, enetzat ez da galtzen, idazten dudanean ez da galtzen, uste dut idazten dugunean, edo kantatzen, edo pintatzen... ez dela galtzen.

Behin baino gehiagotan esan izan duzu ez zarela idazle handia, bigarren mailakoa baizik. Zergatik?
Batetik, asko idazten dudalako, eta asko idazten duenak ez du fama onik. Ekonomian bezala da, askotasuna merketasuna da. Ani-

tzetan hori leporatu didate, asko eta sobera idaztea. Gero, bestetik, uste dut gaiet buruz ere, tematikari buruz. Eguneroko bizitzako gaiak ditut aipatzen nik: langabezia, lantegien zarratzea, amodio ukatuak, exilioa... ez dira gai serioak euskal mundu gogorarentzat eta gai horiek tratatzean beti harrapatzen dut euskaldun fededunen ideologia hori, beti horren aurka, horma bat bezala. Gainera sinetsi nahi dut bigarren mailakoa naizela, presio gutxiago baitut bizkarrean. Nahi nuke beste gauza batean ere sinetsi: norberak bere burua ezabatzeraino idatzi ahal izatea. Ni, lehen pertsona erabiliagatik, ez hor izatea pertsona bakun gisa, ni hori hor izatea ni izanez eta gu izanez aldi berean, gu orain, gu atzo, gu bihar.

Horregatik guztiagatik sentitzen zara periferia-ko idazle?

Bai. Periferiako idazle izateak erran nahi du, batetik, literatur zurrumbilo horren erdian ez izatea, ziklonaren begian ez izatea. Beraz, libere gehiago ukaitea gaiekin, hizkuntzarekin eta gure harreman eta iritziz politikoe-kin. Baditu abantailak. Erraten dudalarik bigarren mailako idazle izaera hori, pixka bat ironikoa ere bada, Euskal Herrian idazleak ateratzen direnean beti baitira lehen mailakoak, inor ez da gelditzen bigarren edo hirugarren mailan.

“Enetzat, kontrolik ez denean fronteran, mugarik ez da”. Nola bizi duzu muga hori?

Nik muga hori anekdota bat bezala bizitzen dut orain alde batean edo bestean blokatuak garenean, gertatzen baita muga ixten dutela alde batetik edo bestetik. Aipatzen ahal dugu beste muga ere, gure buruetan den muga hori, denek aipatzen dutena, baina inork ez du ezer egiten muga horren suntsitzeko edo apurtzeko. Muga aldi berean da zoritxar eta zorion, denentzat, Hegoaldekoentzat eta Iparraldekoentzat. Zoritxar bat da Iparraldekoentzat ez direlako merezi duten bezainbat ezagutuak eta irakurriak eta gonbidatuak Hegoaldeko kultur mundura. Nik hor ez dut erratekorik, badu kasik 40 urte Hegoaldean ibiltzen naizela mintzaldiak egiten, olerki irakurtzen... Ahal badut banao, ze hori ere bada, behar dugu guk ere onartu eta denbora hartu Bilborat edo Nafarroa zokorat joateko, eta ez dugu denok hori egiten. Baina uste dut mugak, bestalde, halako libere bat ere ematen digula, hemen dugun tradizioa, aspaldikoa den literatur ohitura, ez baitugu ahan-tzi behar literatura, euskarazkoa, hemen sortu zela, eta mugak libere ematen digu horren segidaren lantzeko, eta horretaz ere axola guti dugula uste dut.

Ezer gabe hobe nobelan bada apurtzen den beste muga bat ere: generoarena.

A bai, hori ere bai. Garrantzitsua da generoaren muga ere haustea. Gainera, hizkuntzak berak ere ez du mugarik alokutiboa erabiltzen ez bada. Irakurle batzuek faltan sentitzen dute generoaren ausentzia, baina nik idatzi dudanean pixka bat frustratua nintzen, sone-to bat edo bertso paperak idazten dituzunean bezala, ez duzu zure pentsamendua bere osoan sartzen ahal. Gauza bera izan da nobela honetan. Irakurtzerakoan ez dakigu nor zer den, ideia aspalditik nuen, %100 *Basque*-en ere bada kapitulu bat generorik gabe idatzitakoa, eta hori zen ene borondatea. Betidanik entzun dut euskaraz ez zela generorik alokutiboa erabiltzen ez bazen, eta hori bururaino eramatea zen ene asmoa, nobela oso batean egitea eta ikustea zer sortzen den, zer hazten den, zer muga eta ze libertate ematen didan.

Zeintzuk izan dira zailtasun nagusiak generorik gabe idaztean?

Batetik, pertsonaiak ezin dira fisikoki deskribatu. Bestetik, pertsonaien artean ezin da alokutiborik erabili... eta besterik ez, gainerakoa fantasia osoa izan da. Baina nik ikusten nituen pertsonaiak, nire buruan bazuten generorik, nik izendatu ditut. Baina nobelan pertsonaien izenak ere greziar alfabetotik ateratzen dira, beraz, ez dute generorik eta nortasun zehatzik ere ez, izen deiturarik ere ez dute pertsonaia horiek. Hori ere beste ideia bat da, nobela horretan beste ardatz bat neoliberalismoarena baita, zer eragiten digun: nortasunaz ezabatzen gaitu, generoaz ezabatzen gaitu...

Nola eraikitzen duzu zure hizkuntza literarioa?

Ni autodidakta naiz eta, beraz, iturri askotarik hartu dut eta oraindik ere maila linguistikokan iturri askotarik edaten segitzen dut. Gainera, iruditzen zait euskaraz testu baten idazteko ez dela baitezpada erabiltzekoa euskara funtzionala, nik kazetarien hizkuntza eta idaz-

leen hizkuntza bereizten ditut. Beraz, ene libertate eremua da hizkuntzarena, eta ene euskalki ezberdinetarik jasotako hitzak eta bidaietan biltzen ditudanak integratzen ditut testuetan. Batzuetan, soilik begi keinu bat egiteko bizkaitar irakurlegoari edo nafarrari, baina ni ere Axularren gisa ari naiz: ahal ditudan hitz guztiak biltzen eta erabili nahiz. Literatur hizkuntza, orokorrean, gero eta lauagoa dela erran daiteke, baina irakurlegoa ere horrela formateatua dago. Gainera, beste hizkuntzetan ere, frantsesez ere, adibidez, gero eta funtzionalago, gero eta sinpleago dira liburuak. Afrikarrek ere horrela idazten dute frantsesez idazten dutenean, halako aberastasun ponposo batekin, frogatu behar balute bezala hizkuntza aberatsa ezagutzen dutela. Eta nik ere gauza bera egiten dut, hainbestetan entzun dut ene euskara pobrea zela, eskasa zela, behar baitut borobildu, emendatu, ponpostu... erakutsi badakidala, hori ere izan daiteke. Baina hizkuntza libre da bere egiturari, beraz, aditza batua erabil dezakezu baina gainerako guztia pasatzen da, ortografia batuz pasatzen da, baita xiberoko ü-ak ere.

Hizkuntza bat baino gehiago ikasi omen duzu, hizkuntza horretan idazten duten autoreak irakurri ahal izateko.

Bai, egia. Autore alemaniarrek irakurri ahal izateko ikasi nuen alemanez. Rilke irakurri nahi nuen alemanez. Autore greziarrek ere bai, eta orain grezieraz hitz egiten dut Grezian. Euskal Herrian euskaraz eta grezieraz Grezian. Hizkuntza askotan irakurtzen dut: ingelesez, gaztelaniaz, italieraz, portugesez, katalanez, alemanez, grezieraz... Irakurtzen ditudan olerkariak beti inpaktatzen naute, denek, beti bide posible bat erakusten didate, eta horrela aberasten naiz. Obsesiboki irakurtzen dut: autore bat hartzen dut alfatik omegara. Ene denbora hartzen dut. Ez dut denbora askorik hartzen emakume normal lanetan, eta horrek denbora libre asko ema-






www.eguzkilorejoya.com

POLTSAK
BETAURREKOAK
ZAPIAK
GORBATAK
KARTERAK
BILLETE-ZORROAK
DIRU-ZORROAK
GILTZATAKOAK

EGUZKILORE®
osagarriak

DONOSTIA: Hernani, 13 - **BILBO** - GASTEIZ - *Zuluaga Bitxitegiak:* Galdakao eta Zornotza



AZKEN HITZA

Bazterreko irribarrea

"Iparraldeko kultur mundutik kanpo naiz baina betidanik kanpo izan naiz, ez naute sekula barneko zat hartu. Erran dudak bezala, gehiegi idazten dut eta ez dut idazten behar bezalako gaiez, eta ez dut ikuspegi ona ere, bazter ikuspegia dut. Bazter herri batekoa naiz, bazter genero batekoa, bazter fede batekoa, bazter hizkuntza batekoa... Egia da garai batean oso minbera nintzela gai hauei buruz, baina azken denbora honetan berdin zait. Osasun mentalean irabazi dut".

ten dit. Berdin zait hautsa baldin bada etxean, hautsarekin bizi naiz.

Homosexualitatea da zure lanak zeharkatzen dituen gaietako bat, modu metaforikoagoan batzuetan, eta ageriago *Noiztenka* edo *Jalgi hadi plazara* liburuetan. Zergatik erabaki zenuen jauzi hori egitea? Homosexualitate metaforikotik homosexualitate agerikora?

Egia da, betidanik idatzi izan dut lesbiana iza-teaz. Egia erran, besterik ezin, bakoitzak bere ikuspuntutik idazten baitu. Gero, garai batzuetan, metaforikoki idatzi dut, eta egia da *Jalgi hadi plazara* horretan *coming out* moduko bat egin nuela, baina pertsona gisa egin zen aspalditik. Istorio hori gutariko askoren istorioa da, urteak eta urteak pasatu ditugu izaten erran gabe eta, hara, noizbait ordua da erranez izateko. Erranez eta naturalki erranez uste dut ildo irekitzen dugula besteak erran dezaten eta bizi daitezen. Baina uste dut zailagoa izan dela fikzioan egitea errealitatean egitea

baino. Askotan hizkuntzak berak manatzen du, ze hizkuntzak badu bere morala, eta gure kultur munduak badu bere morala, gauzak ez dira erraten, egiten dira baina ez dira erraten, harria bota eta eskua gorde, horrela bizi gara. Eta nik nahi izan dut azpimarratu lesbiana izaera, ze beste guztiek etengabe azpimarratzen dute beren gizon izaera, emazte izaera, politikari izaera... Denek azpimarratzen dute, elkarriketak entzuten dituzu eta denek azpimarratzen dute beren izaera, eta lesbianak edo gayak direnek ez dute azpimarratzen. Badirudi izaera batzuek besteak baino gehiago pisatzen dutela. Bi mahai-inguru egin ditugu literaturaz eta homosexualitateaz, bi bakarrik, eta gure idazkiak beterik direlarik, beteak dira homosexualitatez. Normal da noizbait onar dadin, ikus dadin izaera hori ere. Nire liburuetan homosexualitatea ez da, besterik gabe, pertsonaiei ezartzen zaien ezaugarri bat gehiago, munduari begiratzeko modu bat da, ikuspuntu bat. Homosexualitateak pertsonaiei izaera baldintzatzen eta aberasten du beti. Gehienetan, pertsonaiei bazter ikusmoldea aberasten du.

"Behin lanetik etxera nentorrela pentsatzen ari nintzen, Capbretoneko hilketa gogoan nuela, baduela kasik berrogei urte gure herria gerla itsu eta elkor batek larrutzen duela eta nik amodiozko poemak baizik ez nituela idatzi". Elkarbizitza jokoan eta zu berriz kantu ttipietan?

Hori da ene idazle karrerari buruzko ironia. Gure idazle gisako izaerak erlatibizatzeke ere bada, eta baita errateko modu bat ere idazle gisa kontzientzia dugula gerla baten izateaz, gerla mutu eta itsua baina gerla, eta guk ere parte hartzen dugula gerla horretan, nolazbait, alde edo aurka, edo ez alde ez aurka gure hitzekin. ■

argia.com Literaturaz eta bizitzaz luze aritu gara Bordarekin. Sarean duzu elkarriketaren bertsio luzea.



Ondarre baserria

20214 Segura (Gipuzkoa) Tel.: 943 801684

e-posta: ondarre@hispanista.com www.acvmultimedia.com/ondarre

• Martin Amarilla, Argentinako haur desagertua •

«Gogorrena da gurasoak ezagutzen ari zaren aldi berean haiengatik dolu egitea»

Argentinako diktaduran desagerrarazi zirenei erregimenak ostu zien idealen alde emandako bizia. Bahiturik zeuden emakume haurdunei mundura emandako bizia ere lapurtu zieten eta militarren familietan hazi zituzten haien seme-alabak. Mayo Plazako Amonek, bahitutako biloba horiek berreskuratzeko lana hasi zuten urte haietan eta oraindik ere lan horretan dihardute. Otsailean aurkitu zuten 101. biloba. Martin Amarilla 98.a da.

GORKA BERASATEGI

Marcela Molfino eta Guillermo Amarilla desagertuen semea zarela jakin duzu duela hilabete gutxi. Nola jaso zenuen albistea?

Iazko azaroaren 2an jakin nuen. Banku genetikoko emaitzak eman zizkidaten. Aurretik CONADIRA (Nortasun Eskubidearen Aldeko Batzorde Nazionala) joan nintzen zalantzak bultzatuta. Ustez nire gurasoak zirenen seme ez nintzela pentsarazi zezaketen frogak aurkeztu nituen bertan eta segituan eskaini zidaten arreta, gauza askok sostengatzen baitzuten nire ustea.

Nola joan zen ikerketa prozesua?

Hasieran analisiaren emaitzek ez zuten lotura positiborik eman, nire ama bahitu zutenean astebete eskas baitzeraman haurdun. Inork ez zekien haurdun zegoenik, berak ere ez agian.

Non jaio zinen?

Campo de Mayo atxilotze zentroan. Ospitale militarra zegoen bertan eta hantxe jaio ziren gatibu zeuden haurretako asko. 1980ko ekainean jaio nintzen ni. Ziur aski azkenetarikoa izango naiz, edo azkena agian. Urterik gogo-



rrrenak 76tik 79ra izan ziren. 80an ia ez zen haurrik bahitu.

Hasiera batean inork ez zekien zure ama haurdun zegoenik. Nola lortu zen orduan zure familiaren eta zure arteko lotura?

Campo de Mayon egon zen pertsona baten lekukotasunari esker. Esan zuen Marcela Molfino ospitale militarrean haurra erditu izana posible zela. Nire amaren eta aitaren aldeko osaba-izebei hots egin zieten eta frogak egin zituzten. Imajina ezazu “hau zure familia da” esan zidatenean... Ospitaleko orrietan “%99,9ko probabilitatea” jartzen zuen, zenbakiak gerturatu eta urrundu egiten zitzaizkidan!

Albistea jakin zenuenetik gaur arte nola bizi izan dituzu hilabete hauek?

Hainbat etapa pasa ditut. Orain ere etapa horietako batean nago murgilduta eta, beraz, ezin dut deskribatu oraindik. Baina aurrekoez

hitz egin dezaket. Lehenengo etapan kanpotik begiratzeko duzu dena, ez duzu ezer ulertzen. Zorionez, beti alai, nik bilatu dudana zer-bait izan delako. Ondoren, nire familia aurkitu nuen, oso jende ona da, maitasun handia eman didate, behar nuen denbora errespetatu dute... eta Mayo Plazako Amónak zer esanik ez, behar dudana edozertarako.

Lehen etapa hori pasata zure gurasoen eta familiako inguruko kontuak ezagutzeko irrikaz zaude?

Gurasoei buruz detaileak interesatzen zaizkit orain gehien. Joera nagusia lehenengo haien militantzia politikoari buruz hitz egitea da, baina intimitatean, familian, gauza txikiek pisu handiagoa hartzen dute. Zein janari zuten gustuko, denbora zertan ematea gustatzen zitzaizkien, zein musika entzuten zuten eta halakoak.

“Gauza asko argitu dizkit egia jakiteak. Nire pentsamendu politikoan, mundua eta bizia ikusteko moduan... Barnean pasatzen zitzaizkidan gauza asko ulertzen ditut orain”

Eta zer jakin ahal izan duzu?

Adibidez, familiarekin elkartzeko nintzen egunean gauza sinetsagarria gertatu zen. Zer egin nuen galdetu zidaten. Nik musika egiten dut eta orain gutxi akordeoia ikasten hasi nintzen, piano itxurako teklak dituen. Buenos Airesen ez da instrumentu ezaguna eta jende gutxi jotzen du. Zer pentsa jakin gabe gelditu nintzen nire amak instrumentu bera jotzen zuela esan zidatenean.

Familia ezagutu zenuen eguna aipatu duzunez, nolakoa izan zen momentu hura?

Amonen egoitza izan zen. Oso momentu tentsua, noski, eta oso urduri geunden denok. Halako batean, anaia bati bat hurbildu zitzaidan belarriak ikustera eta belarriko gingila aurpegia itsatsia nuela ikusi zuenean ADN frogaren beharrik ez zegoela esan zidan. Barre algaran lehertu ginen denok eta orduan hasi ginen apur bat lasaitzen.

Beste antzekotasunen bat aipatu dizute familiakoek?

Bai. Hasierako egunetan familiakoei ni ikustea ez zitzaizkien erraza egiten zenbait momentutan. “Zure aita bezalaxe esertzen zara” esaten zidaten, adibidez, edo hark bezala jaten ditudala azazkalak. Haietaz gogorra zen.

Hitz egiteko modua ere aipatu izan didate. Nik uste nuen keinuak imitazioaren ondorio zirela eta honek guztiak harrituta nauka.

Eta zuri zer da gehien kostatzen zaizuna?

Kasu hauetan gogorrena gurasoak ezagutzen ari zaren aldi berean haiengatik dolu egitea da.

Asteburua Chaco probintzian eman duzu, familiarekin batera. Zer moduz ibili zara?

Ongi. Anaia baten etxean izan naiz. Orain harremana eraikitzea da garrantzitsua, haiekin egon eta lotura elikatzea. Ez da gauza erraza izango. Ia 30 urtez falta izan naiz eta denbora asko da. Baina harremana eraikitzea da helburua. Gainera, oso bitxia da zu bezala mugitzen den norbaitekin topo egitea, zuk bezala hitz egiten duen norbaitekin!

Zure gurasoen bizimoduaz, “Montoneros”-eko militantziaz (peronismo ezkertiarrekin bat egin zuen gerrilla) eta haien ibilbide politikoaz pentsatzen duzunean zein ideia etortzen zaizkizu burura?

Errespetua eta miresmena sentiarazten didate. Haien ideiekin identifikaturik sentitzen naiz %100 eta pentsatzen dut egin zuten borroka neurri batean niregatik ere egin zutela eta orain gure herrian bizi garen gazte guztiegatik. Garai hura bizi izan zutenek (senide asko nire gurasoen kide izan ziren orduan) denek kontatzen dute oso garai erromantikoa izan zela. Borroka justua izan zen.

Zure amaren aldeko amonak ere diktaduraren errepresioa jasan zuen.

Bai. Nire amona Perun zegoelarik 601 batailoiak bahitu zuen eta Espainiara eramane zuten. Hasiera batean harritzekoa zen nire amonak Espainiara iritsitakoan bahiturik zegoela ez salatu izana, kodigo hori adostu baitzen militanteen artean eta berak ondo zekien. Baina orain pentsa liteke segur aski nire ama haurdun erakutsi ziotela eta estortsioaren bidez behartu zutela isilik egotera. Madrilera agertu zen gorpua pozoiturik. Nazioarteko erakundetan salatzen ari zen nire amaren bahiketa eta Argentinan gertatzen ari zena.

Zure gurasoak nor ziren jakiteak ideia asko nahastu dizkizu ala gehiago dira argitu dizkizunak?

Gauza asko argitu dizkit egia jakiteak. Ere askotan. Nire pentsamendu politikoan, mundua eta bizia ikusteko moduan, eta beste mila kontutan. Barnean pasatzen zitzaizkidan gauza asko ulertzen ditut orain. Zenbait gai pertsonaletan pentsatzen nuenean, liburu apalategi baten irudia etortzen zitzaidan

burura. Liburuak gaizki ipinita zeuden irudi hartan eta apalak oker-oker eginda. Orain irudi hori pixkanaka konpontzen ari da eta gauza bakoitza bere tokia hartzen.

Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Zebraren antzera, ez dakizu zuria edo beltza den. Oroitzapen oso onak dauzkat eta ez hain onak ere bai. Ustez nire aita zena militarra zen, alde administratiboan egiten zuen lan baina gertatzen ari zen guztiaz jakitun zen. Arazo larria zuen alkoholarekin, segur aski kontzientziak min handia egingo zion. Beraz, harreman gaixo baten erdian nengoen ni. Emaztea bere menpeko bizi zen. Gizonarekiko ditudan sentipenetan ilun dago dena, gezurraren gainean josi baita gure harremana. Eta emakumearekin, oroitzapen onak dauzkat eta, tira... Zorionez haurtzaro ona izan nuen. Horregatik jasan ahal izan dut aldaketa hau guztia lasaitasunez. Ez ditut egitura asko hautsi behar izan. Bahituak izan ziren gazte askok zoritxarrez oso hezkuntza militarra jaso dute eta eraiki duten pentsamoldea oso zaila da hausten. Ez dakit zer pasako zen gizona 14 urte nituenean hil orde z hiru edo lau urte beranduago hil izan bazen.

Desagertuen gaiaz hitz egiten al zenuten etxean?

Gizonarekin ez. Emakumeak, berriz, ez zuen gaia ezkutatzeko. Telebistan-edo agertzen bazen, nik agian komentarioren bat egiten nuen eta kito. Horretan geratzen zen. Baina ez zuen sekula ezkutatu. Ez baitzekien desagertutakoen semea nintzenik. Pasa zitzaion burutik baina hainbat arrazoi medio, beldurra gehien bat, ez zidan sekula Amonenera joateko esan. Hain justu, atzo pelikula bat ikusten izan nintzen, *La historia oficial*. Bikote baten istorioa da. Emakumeak ezin du haurrik izan eta gizonak armadarentzako egiten du lan. Egun batean, gizona haur batekin iristen da etxera, esanez amak ez zuela haurra hezi nahi



Guillermo Amarilla eta Marcela Esther Molfino, Martinen benetako gurasoak.

eta eman egin zietela. Antzeko istorioa da hazi ninduten bikotearena ere. Gainera, militatzen ez zuen jendeak, denek ez baino askok, ez zekiten zer ari zen gertatzen. Edo benetan sinesten zuten “terroristen” aurkako borroka zela.

Noiz hasten zaizkizu zure jatorriari buruzko zalantzak sortzen?

Betidanik izan ditut zalantzak. Haurra nintze-nean ere pentsatzen nuen agian haiek nire aitona-amonak zirela eta nire gurasoak hil egin zirela. Izan ere, nagusiak dira. Emakumeak 80 ditu orain. Pentsa zein gertu nengoen orduan egia! Sinestezina da! Baina orain ulertzen dut pentsamendu hura, orduan “erotuta nago” pentsatzen nuen. Aurrerago, zerkusi handia izan zuen Bigarren Hezkuntzan irakasle izan nuen gizon batek. Eskolako liburutegian, sekretuan, diktadura garaiko pelikula erakusten zizkigun. Gainera “adin hori” genuen mutilak ginen! “Adin hori”! Tipoak lepoa jokatu zuen, izaera katolikoko eskola baitzen. Literatura irakaslea...

Zalantzak buruan gelditu zitzaizkidan bueltaka eta azken bultzada telebista saio bat ikusten jaso nuen. Mayo Plazako Amonen babestutako saioa zen eta bahitutako seme-alaben istorioak kontatzen ziren. Saio horietako batean azaldu zen tipo baten istorioarekin oso identifikaturik sentitu nintzen eta ezin izan nion barruari eutsi. Nire neskalagunarekin nengoen eta berak lagundu zidan egiaren bila abiatzen. 2007ko urrian CONADIRA joan nintzen.

Elkarriketa honetarako Mayo Plazako Amonen egoitzan elkartu gara, aurretik eurak bisitatu ditugu. Zein harreman duzu haiekin?

Haiek gabe ez nuen ezer ere lortuko. Motorra dira. Egiten duten lanarengatik, haien balio humanoarengatik, laguntza, borroka, eredu... Dena. Gainera, beti maitasun handiz tratatu naute. Amonen maitasunarekin. ■



ANDRA MARI
restaurant






Elexalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com

Atopiaz

E

raztunetan barrena joaten saiatuko naiz. Joaquim Jordà zinegile eredugarriak *Dénens* (2004) dokumen-

DANI BLANCO



Iñaki Rozas



Urkiza



Padroin

tala amaitzea lortu zuen erakunde batzuk jarri zizkieten arazoak gaindituz. Hasierako muntaiak ia lau orduko iraupe-na zuenez, bertsio motzago bat atondu behar izan zuen areto komertzialetan ikusiko bazen. Dokumentalaren hipotesia eza-guna egingo zaizue batzuei: Bartzelonako Raval auzoan 1997an emandako pederastia kasuan botere faktikoek egindako manipulazioa eta horren ostean auzoan abiarazi zen garbiketa, hau da, eraikuntza operazio erraldoia. Adin gutxikoen eskubideak aitzakia baino ez ziren izan auzoa ustela zegoela salatu eta hirigintza operazioa abiarazteko. Jordàk operazio hori uzten zuen agerian dokumentalean: alegia, muntaia erraldoi baten ifrentzua, atzealdea.

Askotan galdetzen diot neure buruari zer ote dagoen benetan Bakearen Aldeko Hezkuntza Planaren atzean, José Luisen joan den astean zioenaren harira —eta artean gauzen atzean zer dagoen pentsatzea bederen zilegi zaigunez—. Zer etorriko ote den Planaren ondoren. Gehiegi sakontzeko lekuri ez dudanez, estrategia politiko horren atzealdean egon daitezkeen bi mekanismo azpimarratuko ditut soilik. Lehenengoa, gizarte honetan bizi dugun biktimizazio etengabeko joeran beste urrats bat. Eta bigarrenkoa, Bakearen nolabaiteko promesa. Izan ere, hemen sinestarazi nahi digute Bakearen ostean balizko paradisua biziko dugula. Beste behin nioena: hemen oasi moduko bat eraiki nahi da, non gizarte osasuntsu batean berezkoak diren tentsioak *lifting* etengabe batean ezkutatu nahi diren. Eta gainontzeko arazo guztiak? Langabezia kopuru iraingarriak, etxebizitza duin bat eskuratzeko gazteen arazoak, lan balditzen prekariedade

erabatekoa, gizon-emakumeon desberdintasun nabarmenak, ingurugiroari eragiten diogun etengabeko kalamitatea... Luzea da zerrenda, luzeegia.

Bat nator Anak zioenarekin bai, kalean behar du erabakiak. Baina benetako bidea borroka delakoan nago. Eta oraindik ere bide

hori hasi zutenen pentsamendua jarraitzea beharrezkoa iruditzen zait. XX. mendeko pentsalari askoren talaia ez zen kontenplaziozkoa izan, horrekin ez nator guztiz bat. Kalean, fabri-

ketan, eskoletan, eroetxetan, karteletan eta etxetan borroka egin zuten pentsalariak egon badira, eta batez ere bakarkako lana egiteari utzi ziotenak. Baina orduan ere gizarteak ez zuen zegokion erantzukizuna bere gain hartu.

Atopia bizi dugu egun gure herri eta hiriko kale gero eta pribatizatuagoetan. Lekua galtzean, lurra gure azpian mugitzen dela sen-

tsazioa dugunean, ondoeza epidermikoak sortzen da, sosegurik uzten ez duena. Zergatien inguruan nahasmena dago eta irtenbide edo sendabideak ere ez dira ezagutzen. *Atopia* ez da banakako gaixotasuna —terapiak ondoeza banakakoa bailitzan diagnostikatzen badute ere—. Beste gaixotasun asko bezalaxe gizartearena da, kolektiboa.

Ttakunkideak, eta zuekin gauza askotan ados nagoen arren, ez zait nahikoa iruditzen pentsamendua sortzen jarraitzea. Pentsamenduak parte-hartze kritikoa bultzatu behar du, politizatu —benetan politizatu—, eta ez akritikoa edo besterik gabe besteek esaten dutenari jarraitzen diona. Pentsamenduak eta hezkuntzak, gazteetatik hasita, gizon-emakume autonomoak, heterogeneoak, *singularrak*, osatu behar gaitu. Zu eta bion artean dagoen mundua, tartea, ehuna, pentsatu, sentitu, ukitu eta bizi ahal izan dezagun, jendetza multzo bat osatuz. ■

Ez zait nahikoa iruditzen pentsamendua sortzen jarraitzea. Pentsamenduak parte-hartze kritikoa bultzatu behar du, politizatu —benetan politizatu—, eta ez akritikoa edo besterik gabe besteek esaten dutenari jarraitzen diona

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Rosa Maria Martín Salazaris

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Hamaikagarren mezua



oizean behin gelditu egiten naiz. Geldialdi teknikoak izaten dira. Benetan nahi dudanez norantza hartu dudanentz egiaztatzeko.

Abiadurak ez ote dizkidan paisaia-rik ederrenak ezkutatu aztertzeko. Ikusi gabe begiratu ditudanek arreta merezi zuten ala ez... Eta abar. Teknikoki ezabaten ditut posta elektronikoaren bidez heltzen zaizkidan *powerpoint* gehienak, irakurri gabe.

Noizean behin egiten dudanez bezala, gaur ere gelditu egin naiz. Oraingo geldiunean, zakarrontzitik atera ditut lagunek bidalitako mezua. Lehenengoak kontuz ibiltzeko dio, telefonoz deitzen didan edonori ez emateko inolako klabe-rik. Ez nuen inoiz egingo, esan diot lasai neure buruari. Hurrengo mezuan, nire lankide baten lagunaren lankidearen seme txikia desagertuta dagoela iragarri didate eta mezua zabaltzeko eskatu ere, pena ematen zuen mutikoaren aurpegiak... Hirugarrenean, etxe askotan apaingarri gisa dугun *diffembachia* izeneko landarea izugarri pozointsua dela eta tipo bat hil duela ohartarazi dit nire osasunaz arduratu ohi ez den beste lagun batek. Ondorengoak, inguruko herrietako parkeetan gozokiak eskaintzen ibiltzen den pederasta baten irudia atxikita etorri zait, ezaguna egin



INIGO AZKONA

zait, eta aurreko mezuko mutikoarekin gogoratu naiz. Bosgarren mezua, *Progeste-rex*, bortxatzaileen drogaren arriskuaz oso modu grafikoan ohartarazi dit. Horraino iritsita, takikardia izerditsuan nengoen itota, inozoa ni, arrisku horien guztien ezjakitun...

Nire arduragabekeria zuzendu nahian zabaldu dut hurrengo mezua. Bizkaiko mendiak eta hondartzak azaldu zaizkit Lertxundiren kanta batekin batera. Eta segidakoan, irribarrea atera didan txiste-sorta irudiztatua. Zortzigarren mezua bularreko minbiziaren aurka borrokatzeko aitzakiaz *youtube*era eraman nau, eta han ikusi dudanez bideoak pozez eta itxaropenez bete nau. Eta gero emakumeok omen ditugun adiskidetan harremanez goxo-goxo hitz egin dit beste *powerpoint* batek. Hamargarrenean, betirako zorian-tasunaren giltza bidali didate, eta

berarekin batera beste zazpi laguni igortzeko derrigorrezko enkargua. Honenbestez bihotz taupadak motelduta nituen eta pantailaz besaldeen paradisua zegoela sinestuta nengoen...

Eta hamaikagarren mezua zabaltzeko lehenengo klikaren une berean gogoratu naiz geldialdi teknikoaz, ez dut bigarren klik egin. Ixti dut pantaila. Etxeko leihoa zabaldu eta hantxe geratu naiz, udaberriari begira. ■

Hamaikagarren mezua

zabaltzeko lehenengo klikaren

une berean (...) itxi dut pantaila.

Etxeko leihoa zabaldu eta hantxe

geratu naiz, udaberriari begira

TXANDAN

Castillo Suarez



“Ordu gozoak/ordu garratzak/denetik du bizitzak./Baina gaur tori loreak eta utzi arantzak”.

Joxantonio Ormazabalen beraren hitzak baino hobeak ez ditut aurkitu apalategiko liburuen artean heriotzari buruz idazteko. Edo bizitzari buruz, beti elkarrekin, baina, aldi berean, elkarri kontra eginez aipatzen baiztituen hark.

Ilunorduak eta argilaurdenak liburua duela hilabete batzuk ireki nuen azkeneko aldiz. Inaki Otxoa de Olza hilberria zen, eta liburu horretako poema puska bat hautatu nuen hari buruzko idatzi bat

Tori loreak

hasteko: “Mendi bakartian/txoko basatian/inork inoiz/ikusiko ez duen/lorea zu”.

Ormazabali bidali nion testua ondotik, eta eskerrak eman zizkidan, nahiz eta ni izan eskerrak eman behar zuena.

Eta zer politagorik lore izatea baino zuhaitzak eta landarean loratzen diren sasoian. Eta zer politagorik arantzak ahaztu eta loreekin geratzea baino bizitza amaitzen denean. Etorriko dira berriz ere euriak eta elurak, baina ez dira zimelduko bihotzeko loreak. Idatziak daukelako. Esanak eta hamaika modutara adieraziak daudelako. ■

Gotzon Barandiaran Arteaga

IDAZLEA

Irabazleen ausardiaz

Bakerako Hezkuntza Plana deritzona berbagai zutela entzun genion Arantxa Urretabizkaiari Euskadi (España da) Irratian, berak eta Felipe Juaristi halako idazleek aspaldi gaingitu zutela beldurra, aspalditik daudela bat eginik ETaren terrorismoak eragindako biktimekin. Beraiek askatasun osoz mintzo dira, inoren eraginik, inoren agindurik, eze-lango ideologiaren doktrinaren arauetatik aske idazten dute, ez dira inoren menpeko. Besteok uztarripean bizi gara, ETAkoek zein berau babesten dutenek noiz, zer, zelan idatzi aginduko diguten esklabo. Geuk ere gure ondorengoek eskoletan gutxienez XX. mendetik gaur egun arte Euskal Herrian gertatutakoaren berri jakin beharko luketela deritzogu. Konta diezaiegun nortzuek eta zergatik eragin eta irabazi zuten 1936ko Guda Zibila. Azal diezazkiegun Hego Euskal Herrian hogeita hemezortzi urtean milaka euskaldunen kontra diseinatutako estermínio politikaren funtsak. Konta diezaiegun Lapurdi, Baxenafarroa eta Xiberuako euskaldunek Lehen Mundu Gerran edota Aljeriakoan pairatutakoak. Konta diezaiegun zein testuingurutan sortu zen ETA eta zergatik iraun duen gaur egunera arte. Konta diezaiegun ETaren borroka




INIGO AZKONA

«
Arantxa Urretabizkaiaren
arrazoiak aintzat hartuz gero,
ausarta izatea botere osoa
dutenen alde jartzea da
»

armatuaren ondorioz pertsona asko hil direla, sufrimendua itzela –izan– dela. Konta diezaiegun Espainiako Gobernuak sufrimendua ekidin beharrean elikatu egin duela, gaur egun Eusko Jaurlaritzan daudenek sortu zutela GAL eta GALEk pertsona asko hil zituen, sufrimendua itzela –izan– dela. Konta diezaiegun Euskal Herrian dauden polizia indar guztiek torturatu dutela, askotan heriotza eragin arte. Konta diezaiegun Bakerako Hezkuntza Plana adostu dutenek ezkutatu egiten dutela tortura, Marixabel Lasak ezkutatu egiten duela tortura, Rodolfo Aresek torturatzea agindu duela, Jose Antonio Pastorek torturatuei salaketarako eskubidea ere ukatzen diela, Patxi Lopezek torturak baimentzen dituela. Konta diezaiegun hegitik egira. Arantxa Urretabizkaiaren arrazoiak aintzat hartuz gero, ausarta izatea botere osoa dutenen alde jartzea da, iritzi publikoa norabidetzen duten komunikabide publiko edota pribatu indartsuenetan idatzi zein berba egitea, Guardia Zibilak Naia Zuriarrain eta Saioa Agirre torturatu eta sexualki jazarri zituela ez salatzea da. Guri zehatzago azaldu beharko digute zergatik den horren arriskutsua indar armatuak, epaileak eta kartzelak gobernatzen dituztenen alde idaztea. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Aplikatzeari deitzen diote justizia. Espainiako Senatuan, galegoa katalana eta euskara erabiltzea baimendua izango dela eta, gure artean berrogei urtetik gora bizitzen den hirukote bat entzun dut kalakan. Hiruak ados zetoenez, geroz eta hots ozenagoz ari ziren. Zozokeri bat, guztiek gaztelera badutenez zertarako konplikatutako elkar ulertzen, orain artekoak funtzionatu ez balie bezala. Gainera guztion sositik ordaindu beharko dugu itzulpenek sortu gastua, deusetarako balioko ez diguna. Hobe lukete moroei-eta gaztelera ikas dezaten behartzea, epe bat fin-

Legedia

katu eta ikasten ez duena kanporatzea. Hartzen dituen nazioen hizkuntza ez dakitenek, berarekiko errespetua erakusten ez dutenek, epe batetik gora ez lukete eskubiderik izan behar onartuak izateko. Etorri ziren bidetik eta patera berean kanporatu beharko lituzkete. Bake ederra. Eta politikoei hobe lukete hori bideratzeko legeren bat adostu txorradak alde batera utzita, hemengo erradikalekin egin duten bezala. Gutxienezkoa da nola bukatu zen asuntza adieraztea. Baina, orain gutxi lagun min baten semeak esandakoa etorri zitzaidan gogora: mutu oro isilik badago ere, isilik dagoen oro ez da mutu. ■

BERTSO BERRIAK

Xabier Paga



DANI BLANCO


Mexiko, Detaileen Festa

Mexikon bertsolaritza
aztertu nahian dabilta,
horrexegatik, hara,
joana naiz bertara,
eta heldu bezain laster
txunditu nintzen, zer bazter,
zer nolako kultura,
desberdina da hura!
Saiatuko naiz azaltzen
zertzeladetan islatzen
zer ote den Mexiko!
Mito toki magiko,
auto zaharren hariko
hiri zahar automatiko
handi baten atiko,
ikuspuntu etiko
batetik so behin betiko
galdutako lur begiko
baten amets beliko,
tekila etiliko
hotz biren aje etniko
baten *souvenir* tipiko,
furgoneta hippiko
zilindrada hipiko
latzenaren hots ziniko,
amets bat, hogezi zimiko,
atmosfera kimiko,
txano handi mitiko,
emo bi, hiru gotiko,
lau langile utopiko,
bost greba historiko,
sei enpresa eskubiko
bandan dauden esku biko
zazpi burugain zuriko
gizonen irudiko
zenbat metro kubiko?
Indigenak belauniko,
Garibaldin sei mutiko,
azteken mamu tinko
zaldian Carlos Quinto:

koloniarik ez... kito!
Parean lau meteorito
ukitzea errito
turistaren erritmo,
ebasleen Santa Rita
ebasiak aldarrika
Don Celesen karrika
ilunean korrika...
Denboraren kloratita
deitzen duten "ahorita"
erlojuen tak-tika
lehertzeko taktika
berezko taktikatik at
ez da ez eten, ez *kitkat*
tira, igual kitkatel
baldin bada nahuatel...
Ahuakatel, xocolatel
arto eta xitomatel...
koloniaren hotel,
zenbat hizkuntza, motel!
Klima bero, ez da epel,
arren, bi ostioi koktel!
Hernan Cortesen kuarter,
hainbat narkoren kartel,
Diego Riveraren arbel,
Lenin, Marx, Stalin, Hegel,
hamabi lagun ergel
eta hamaika nobel,
nopalen arantzen orbel,
behin bisitan Blanca Urgell,
urpeko lokatz umel
gaineke irla itzel,
hiru mundu paralelo:
batean denak modelo,
gomina eta xerlo;
bigarrena da lelo
ugariren kontsuelo,
personas de medio pelo;
eta azkenen lelo:
"dena da estraperlo",

giltzurrun zein karamelo
erosteko errezero
gutxi duten bandalo
batzuen banden arlo...
Bitartean Frida Kahlo,
bekain baten katamalo,
tamalen uso xalo,
gaixotasunen halo,
elefantearekin lo...
Maite al zuen? Auskalo!
Mitoa: txorimalo
Espaloia: zokalo
Txarragoa: Guatemala
Heriotza: bala-bala
Kutsadura: normala,
pobrezia bezala.
Diferentzia: azala,
deferentzien eskala,
karteraren itzala,
itxuraren ahala...
Guztia ez da gerrila,
oihu eta banderila,
bada jende umila,
bada paraje pila,
jatekoa, marabila:
eskamolea, tekila,
mole, tako, tortila,
gordita, quesadilla...
Euskaldunak ere, mila,
dena ez da Pancho Villa,
aukera baten bila
joandako koadrila...
Sumendien Amerika,
lurralde oso polita,
hiri kosmopolita...
Aste betekoz zita?
Errimen erretolika,
bidaia baten kronika,
flashak eta musika,
horra herri mexika.

DOINUA: Segidilla.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Zinema

«Buruarekin jokatzek beti ez gaitu helduago, jakintsuago egiten»

Juan Marik mus partida jokatu bitartean, baserrian zain geratzen da egunero Axun. Halako batean, Maite txikitako lagunarekin egingo du topo eta une horretatik aurrera, batzuek eta besteek sentsazio, sentimendu eta harreman piztu berriei egin beharko diete aurre. Euskaraz pentsatu eta egin den pelikularik onenetakoa, 80 egunean, maiatzaren 21ean estreinatuko dute Moriarti Produksioak-eko Jon Garaño (*On the line*) eta Jose Mari Goenaga (*Lucio*) zuzendariak.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: Dani Blanco

Bi ezaugarri eskertu ditut film honetan. Bata, euskarazko ohiko komedia ez izatea.

Jon Garaño: Merkatuarekin du zerikusia, nik uste. Oso merkatu txikia da gurea eta beharba da ekoizleek, telebistak eta erakundeek errazago ikusten dute publikoarengana umorearen bidez iristea. Logikoa da lehenengo filmak egiten hasi zirenean, duela hamaika bat urte, umoreira jotzea jendea erakartzeko, diotelako zinemari eta telebistan umorea bilatzen duela jende

askok. Logikoa da baita ere, urteak pasa ahala, umoretik at beste genero batzuk ukitzea, eta gurea horren ondorio da.

Jose Mari Goenaga: Pelikula honek bere gauza on eta txarrak izan ditzake, baina egia da freskotasuna eman diezaiokeela euskal zinemaren panoramari. Egin izan dira dramak (*Zorion Perfektua*, *Ander...*), baina gureak dramaren eta komediaren arteko apustu pixka bat desberdina dauka.

Jon Garaño



Jose Mari Goenaga

Bestetik, ikusten da kalitate handiko lana dela, pelikula landua, zaindua, zinemarako pentsatua.

J.M. Goenaga: Eskerrik asko. Saiatu gara gauzak ondo egiten. Istoria gauza askotan apala da, klasikoa, baina arlo batzuk bereziki zaindu ditugu, eta ahalik eta urrunen joan gara: aktoreen lana batetik, ikusten genuelako batik bat pertsonaien istorio bat dela eta aktore egokiak aurkitzen ez bagenituen pelikulak behera egingo zuela. Aktore aproposenak bilatzen behar adina lan eta denbora hartu genuen, ez baitzen hain erraza, kontuan hartuta behar genituela 70 urte ingurukoak, euskaraz ongi dakitenak eta paper hauek egiteko prest daudenak. Bestetik, konfiantzazko talde teknikoa izan dugu inguruan.

Tabu asko jarri dituzue aurrez aurre: edadetuak, emakumeak eta lesbiana.


J. Garaño: Ideia daukazunean ez duzu pentsatzen ea tabua den, istorio bat ikusten duzu. Gero garatzen zoazenean konturatzen zoaz agian baietz, gizartean tabuak diren kontzeptuak lantzen ari zarela, baina gure helburua ez da izan zentzu horretan apurtzaileak izatea.

J.M. Goenaga: Istorioaren estiloan nabaritzen dela uste dut, gure asmoa ez dela apurtzaile izatea, errealtate hori ahalik eta era naturalenean agertzea baino. Sentimendu unibertsalekin jokatu dugu eta edozein sexu eta adineko jendea identifikatuta sentitzea nahi dugu.

Hala ere, ez gaude ohituta filmean islatu dituzuen egoera askotara. Zaila izan da naturaltasuna, sinesgarritasuna lortzea?

J.M. Goenaga: Bai aktoreen lana eta bai gidoia garrantzitsuak izan dira horretarako. Jonek hasieran egindako gidoian jada erreferentzia garbiak zeuden, gertuko pertsonaia irudikatu zituen; edozeinek izan dezake Axun bat, Juan Mari bat edo Josune bat [alaba] bere bizitzan. Horrekin jokatzen saiatu gara.

J. Garaño: Guretzat oso inportantea zen hori, pelikula ikustean publikoak sentitzea antzeko norbait ezagutzen duela. Horregatik, sentsazioa daukagu beharbada gure mundutik hobeto ulertuko den pelikula izango dela. Film unibertsala egin nahi izan dugu, mundu guztiak ulertzeko modukoa, baina Euskal Herrian



Itziar Aizpuru (Axun), Mariasun Pagoaga (Maite) eta Jose Ramon Argoitia (Juan Mari) dira aktore nagusiak. "Jakitun gara topiko askok errealtate kutsu handia dutela. Topikoetatik abiatuta, konplexutasuna eman diegu pertsonaiei", dio Goenagak.

hobeto ulertuko den sentsazioa daukagu. Eta jendeak ikusten badu etxetik etxera egindako zerbait dela, hori ere positiboa izango da guretzat.

J.M. Goenaga: Elkarrizketak ere zaindu ditugu, ez dituzte sentimendu asko plazaratzen, pisu gehiago dute esaten ez diren gauzak esaten direnek baino, eta hori ere oso euskalduna dela iruditzen zitzaigun.

Rol tradizionalak, adin batetik aurrera asko ematen direnak, nabarmen ageri dira baita ere: emakume zaintzailea, emaztea ez dagoenean ezertarako gai ez den gizonezkoa...

J.M. Goenaga: Bai, topikoetan erortzeko arriskua bazegoen hor, baina jakitun gara topiko askok errealtate kutsu handia daukatela. Topikoetatik abiatuta, konplexutasuna eman diegu pertsonaiei.

Finean, nahiko sentimendu unibertsala planteatu duzue: familiaren pisua vs. pasioa, benetan nahi dugunaren eta atzean dugun zamarren arteko borroka...

J.M. Goenaga: Guk burua ala bihotza, horrela laburbildu dugu. Ildo horretatik beste hausnarketa bat sartu dugu: helduagoak eginagatik ez gara jakintsuago bilakatzeko. Hots, Axunen ardura-sen

handia (funtsezkoa pelikularen eszena batean) heldutasunaren ezaugarri da ala kontrakoa? Azken finean, buruarekin jokatzeko agian ez zaitu helduago, jakintsuago egiten. Agian jakintsuagoa litzateke bihotzarekin jokatzeko.

J. Garaño: Normala da bihotzarekin jokatzean akatsak egitea ere, eta badirudi adin batetik aurrera bihotzak jada ez duela bizitzarik. Adierazi nahi genuen bihotzak zeresana izan dezaakeela adin batetik aurrera ere. Sentimenduak dituztela eta bizirik daudela!

Zer moduzkoa izan da proiektua bi zuzendariren artean gidatzea?

J.M. Goenaga: Gogorra. Talde lana da Moriartin dugun filosofia, Jonek eta biok hamar bat urte daramatzagu elkarrekin lanean, baina lehen aldia genuen kozuzendaritzan. Errodajearen presio handia dago, denbora gutxi, erabakiak segituan hartu behar dira... eta lan banaketa egin arren —ni gehiago aktoreekin, Jon talde teknikoarekin— behin errodajearen lanak nahastu egiten dira, ikuspegiak aldatu... eta logikoa den bezala tentsioak sortzen dira.

Baina askatasun handia izan dugu pentsatzen genuena agertzeko eta aurrera egin dugu.

J. Garaño: Bi pertsona gaude pentsatzen eta oso zaila da denean iritzia bera izatea. Baina ona da hori, zure ideia besteak zalantzan jartzen duenean hausnartzeko balio behar du.

Euskara naturala, freskoa erabili duzue, euskalkien nagusitasunarekin.

J.M. Goenaga: Aktoreak aukeratu ostean, eskatu genien elkarrizketak beren hizkerara eramateko.

J. Garaño: Axun eta Maite protagonisten hizkerarekin jokatu nahi izan genuen, baina ingurukoak baldintzatzen dituzte. Hala, Axunen lagunak hartu genituen gustatu zitzaizkigulako, baina baita zumaiarrak direlako, eta Itziar [Axunen papera antzeztzen duen aktorea] getariarra izanda, hizkera berdina ez izan arren antzekoa delako. Maitek ekialdeko bizkaiera hitz egiten du. Juan Mariren kasuan, aktorea markinarra da, baina oso ohituta dago euskalki ezberdinetan hitz egitera eta berari markatu genion gehien, [filmean emazte duen] Axunen hizkerara edo gipuzkerara aldatzeko.

J.M. Goenaga: Azkenean, lehentasuna eman diogu aktorea bere paperean eroso sentitzeari, normalean hitz egiten duten moduan hitz egiteari, naturaltasunaren mesedetan.

J. Garaño: Dibertsitate hori erakustea ere aberatsa da, errealitatearen isla. Hasieran pelikulak elebiduna izan behar zuen, beste gauza batzuen artean Maite argentinarra zelako, eta interesgarria iruditzen zitzaigulako gizartean zegoena erakustea, nola baserritik hirira joatean askok uste duen inork ez dakiela euskaraz eta erdarara jotzen duen, nola erdal-dun bat dagoenean erdarara jotzen dugun...

"Homosexualitatea modu dramatiko-tragikoan erakutsi izan da zineman. Errealitate baten isla da hori, baina gaia era lasaiagoan azaldu nahi genuen"

J.M. GOENAGA

"Film unibertsala egin nahi izan dugu, baina Euskal Herrian hobeto ulertuko den sentsazioa dugu. Ikusten bada etxetik etxera eginga dagoela, hori ere ona izango da"

J. GARAÑO

Noizbait hori ere kontatzea polita litzateke. Baina produkzioak baldintzatu gintuen: dena gaztelaniaz edo dena euskaraz izatea eskatu ziguten.

Bahman Ghobadi zuzendariak, *Dortokek ere hegan egiten dute* filmaz esan zigun errealitatea bere gordinean gogorregia zelako erabili zuela umorea. Zuek zein helbururekin erabili duzue?

J.M. Goenaga: Pixka bat arrazoi beragatik.

Iruditzen zitzaigun homosexualitatea zineman askotan erakutsi dela pertsonaia atormentatuekin, modu dramatiko-tragikoan... Errealitate baten isla da hori, baina apustu egin nahi genuen gaia era lasaiagoan azaltzeko. Iruditzen zaigu errealitatea ez dela dramatikoa edo komikoa, bien nahasketa baizik. Pertsonaiarentzako dramatikoa dena, publikoarentzat komikoa izan daiteke, eta horrela onartu behar da. Horregatik erabili ditugu umorea eta irudien tratamendu argitsua.

Ander pelikula duela gutxikoa da, homosexualitatea jorratzen du baita ere, ezohiko inguru batean, baserri giroan. Jaialdie-tan-eta arrakastatsu ibili arren, komertzialki ez du estreinatzerik lortu Espainiako Estatuan. Roberto Gastón zuzendariaren arabera, gaia eta euskaraz izatea dira arrazoi nagusiak.

J.M. Goenaga: Guk banatzaile bera izan dugu aurreko lanetan, Barton Films, eta honetan ere hasieratik egon da. Nik uste


Roberto Gastónen lanak askoz ere arrisku handiagoak hartu dituela estilistikoki. Gaiak garrantzia izan dezake komertzializatzeko zailtasunetan, baina baita estiloak ere. Oso pelikula ausarta da eta estreinatzea eta jendeak ikustea merezi du; pena da.

SaiazGetaria
H o t e l a

Roke Deuna, 25 • GETARIA
www.saiaszgetaria.com • Tel.: 943 140 143



bilera gela



J. Garaño: Guk kontrolatzen ez dugun mundua da banatzaileena eta zinema-aretoena. Zenbat pelikula amerikar erakutsi behar dituzten, zenbat hemengoak... *Ander*-ena ez da kasu bakarra. Guk zortea dugu pelikula estreinatuko delako, eta hori bada zerbaiz gaur egun.

Nolako harrera espero duzue?

J.M. Goenaga: Gustatuko litzaiguke publiko orokorra erakartzea. Gure beldurra da pertsona askok, ikustean gaia dela bi emakume, helduak... pentsatzea ez zaiela interesatuko.

J. Garaño: Eta euskaraz izateagatik. Lehen bazen jendea zinemara joaten zena filma euskaraz zelako, eta orain kontrakoa gertatzen da sarritan.

J.M. Goenaga: Positibotzat jo dut hainbatek esan izana "euskaraz zela ahaztu egin zait". Uste dudalako horrekin esan nahi dela ez duela pelikula ikusi militantzia puntu batekin eta euskaraz delako; hizkuntzaz ahaztu egin da eta istorioan zentratu. Eta hori lortzen badugu, istorioa barneratzea eta disfrutatzea, primeran.

Euskarazko produkzioan mugimendua egon da azken urteetan. Nola ikusten duzue panorama?

J.M. Goenaga: Bidea mantsoa dela uste dut, baina normala da, eta gauza batzuk hobeto eta beste batzuk okerrago aterako dira. Dena den, gauza oso interesgarriak egiten ari dira, *Ander* bera proposamen freskoa da, baina halako proposamenak ez dira egun batetik bestera ateratzen, pixkanaka sartzen joan beharreko gauzak dira. Jendeak pazientzia segituan galtzen du. *Aupa Etxebeeste!* izan zen pixka bat atak ireki zituena eta jendeak espero du dena maila berekoa edo bide horretan egina izatea, eta proposamen batzuk hain ongi ateratzen ez direnean pazientzia galdu egiten dute. AEBetan, estudio handiek urtean hamar proiektu aurreikusten dituzte eta horietatik bi baino ez dituzte azkenean aurrera ateratzen. Kontzeptu hori falta zaigu hemen.

J. Garaño: Kulturako gainontzeko esparrutan euskarak bere lekua izan du eta zineman oraintxe hasi gara leku hori hartzen. Horrega-

"Hainbatek filma ikusi bitartean euskaraz zela ahaztu izana positiboa da, ez duelako filma ikusi militantzia puntu batekin, euskaraz delako; hizkuntzaz ahaztu eta istorioan zentratu da"


J.M. GOENAGA



Bi zuzendari batera aritzea gogorra izan da, baina positiboa. Garañoren esanetan, "zure ideia besteak zalantzan jartzen duenean, hausnartzeko balio behar du".

Pascal Gaigne

J. Garaño: "Oso harreman ona dugu berarekin. Duela hamar urte joan ginen labor batekin, errespetu handiz, Gaignek izena zuelako ordurako, 'gingo zeniguke labor honen musika?', eta egin egin zigun, doan. Oso musika aproposa gainera. Eta ordutik ikusi dugu bera dela gure musikaria; era guztietako musika eskatu diogu, thriller baterako, intimistagoa, aire etnikoekin... Eta denetik eman digu ona. Iritsi zen momentu bat non berak argi zuen zein musika nahi genuen".



tik, denerako lekua egon behar du, dramarako, komediarako, zientzia fikziorako... Ona eta txarra. Normalizaziorako pauso bat litzaiteke. Hemengo jendeak hemengo zinema egiteko beharra dago, askotan esaten baitigute, "euskaraz egin behar duzue? Baina horrek asko mugatzen du distribuzioa!". Beraiek ez dute ulertzen pelikula horiek guk egiten ez baditugu, ez dituela beste inork egingo.

Katalunian adibidez, zinema-aretoetan film kopuru jakin bat katalanez eskaintzea legeztatu nahi dute. Hemen ere horrelako zerbaiz egin ahalko litzateke euskarazko pelikulekin?

J. Garaño: Denek, bai katalanek eta bai guk, heredatu dugu Espainian dagoen bikoizketarako joera. Baina logikoa izango litzateke ohitura bat izatea pelikulak bertsio orijinalen eta azpтитuluekin ikusteko. Horrela ikusten da Holandan, Danimarkan, Suedian, Portugalen... Beraiek bezala bagina, oso logikoa ikusiko nuke azpтитuluak erdaraz daudenean euskaraz ere egotea. Bikoiztearena egiten zait arraro, nahiz eta era berean jakitun naizen jendeak horrela bakarrik joan nahi duela zinema ikustera. Ez hori bakarrik, ohitu egin dira pelikulak gaztelaniaz bikoiztuta ikustera, arraro egiten zaizkie euskaraz bikoiztutako pelikulak. Berdin Katalunian: han ia denek katalanez jakin arren, jendeak jotzen du gaztelaniazko bikoizketak ikustera. Aldatu egin nahi da hori, baina ez al zen beharbada positiboagoa izango pelikula bertsio orijinalen jarri eta katalanez azpтитulatzea, eta era horretan katalanezko pelikulak bultzatzea? Donostian areto bakarrik proiektatzen du azpтитuluekin eta gaztelaniaz azpтитulatzen du. Euskaraz azpтитulatuko balute, nik uste jendea joango litzatekeela horiek ikustera. Berdin DVDekin. Guk, hain justu, apustua egin dugu *80 egunean* hemendik kanpo estreinatzen denean pelikula bikoiztu beharrean azpтитuluekin emateko. ■

Zinema

Beti geratuko zaigu Zoragarrieta


“Bakoitza bere zoroak bizi du”, dio esaera zaharrak, baina nago ez ote legokeen egokiago pluralean: “Bakoitza bere zoroek bizi dute”. Nire kasuan, aitortzen dut Lewis Carrolek Alice Liddellentzat asmatu zuen mundua dela bizi nauten zoro horietako bat. Beharbada horrexegatik asmatua diot herrialde horri ustez nik bakarrik erabiltzen dudana izena: Zoragarrieta. Edozein dela ere nire jardunaren gaia, ia beti aurkitzen dut Zoragarrietara joan-etorriko txangoa egiteko zuloren bat, horretarako ariaren logika behartu eta logikaren haria bihurritu behar badut ere sarri.

JOXERRA GARZIA

GAUZAK HORRELA, beldurrez joan nintzen Tim Burtonek Carrollen obra abiapuntutzat hartuta osatu duen filma ikustera. Ohi bezala, ahalik kritika gehien irakurtzen saiatu nintzen filma ikustera joan baino lehen. Eta, ohi bezala, ezer irakurri ez banu baino okerrago geratu nintzen: ez lurrerako, ez zerurako, hainbestekoa baitzen kritiken arteko desadostasuna.

Aurkakoetan gogorrena, euskarazkoa (Gontzal Agoterenaren: *Berria*, 2010ko apirilaren 20koan). Garai bateko Tim Burton laudatu eta gero, egurra banatzeari ekiten dio kritikariak kupidarik gabe. Filmari, noski, baina baita filmaren aitzakian Burtoni berari ere, gordin: “Lotuta edo saldu-ta, zuzendariak ez du jakin izan nola gobernatu Disneyren *diktadura*”, esaterako, edo “Alice aitzakia bihurtu du film *topiko* eta *atzerakoi* bat egiteko”, edo “Kolare biziak, Depen keinu errepikakorrek eta pertsonaien janzkera ustez originalek ezin dute ezkutatu *erabateko traizioa*” (hitz etzanak neuk etzanarazi ditut, zutik uzteko gogorregiak iritzita).

Egia da Burton nahi beste eta gehiago aldentzen dela Carrollen liburu(eta)tik (filmaren hari nagusia berak asmatua da, ez da Carrollenean agertzen), baina hori beti egin izan du Burtonek (*Big Fish*en, esaterako). Beti bezala, mundu jakin baten bertsio jakin bat eskaintzen digu Burtonek, ondo ere berea, baina etengabe esaten ari zaigu zertan ari den,



Tim Burtonen *Alice in Wonderland* filmeko irudi bat goian. Gisa horretakoa irudikatu du zinegileak Chesire-ko katua.

ez du inor engainatzeko asmorik. Nire ustez, horrexegatik bihurtu du Alice emakume heldu, eta horrexegatik gogoratzen digute behin eta berriz aurreko aldiaren Zoragarrietan izan zenean ume moko bat baino ez zela Alice.

Beldurra beldur, nik gustura ikusi nuen filma, eta iruditu zitzaidan pasarte gehienetan primeran lortua dagoela Carrollen zoroetako mundua. Mundu horretakoa ez diren osagaiak sartu dituen, eta filma ez baita bi orduko iraupenera hel-

tzen, nire kuttun diren pertsonaia asko geratu zaizkio Burtoni filmetik kanpo, eta horixe da, nire ustez, filmak exkaxen duena. Hala eta guztiz ere, sartu ahal izan dituen pertsonaia apurak carrolldar peto-petoak begitandu zaizkit niri.

Nire zoroetako beste bat ere agertzen da filmean: Cheshire-ko katua, literatura eta filosofia bikain uztartzen dituen sorkaria. Liburuan, erabat desagertu eta gero ere irribarre airean uzten du katuak (irribarre hutsa, hortzezpainik gabea). Filmean agertzen dena, aldiz, askoz katu arruntagoa da: badaki desagertzen, baina ez desagertu eta gero irribarrean airean zintzilik uzten. Zinemari hirugarren dimentsioa erantsi badiote ere, bada hitzek bai baina irudiek sekula izango ez duten beste dimentsio bat.

Kritikak kritika eta euskarria gorabehera, beti geratuko zaigu Zoragarrieta. ■

Liburuak

KRITIKA

Ipuin kontalariaren arbela.
Pello Añorga. Irudiak: Jokin Mitxelena.
Aizkorri.
36 orrialde. 7 euro.

Haur eta gazte literatura
Xabier Etxaniz Erle



Gelaren epelean kontu kontari

PELLO AÑORGA ETA JOKIN MITXELENAREN artean asmatutako protagonistaren hirugarren liburua dugu hau. Ipuin-kontalari bat, kasu honetan idazlea ere badena, dugu liburu honen egileetako bat, eta alde horretatik ahozko kontaketa eta idatzizko narrazioaren arteko idazlana ere badela esan dezakegu.

Istorio labur honen narratzailea ume bat dugu, klasean, epelean, inguru guztia elurrez beteta dagoen egun batean ipuin-kontalariaren zain dagoen ume bat. Eta ez dakigu nor den ume hori, ezta nolakoa, izan ere klasea ordezkatzeko duen pertsona bat da, ikasgela horretan dagoen bat.

“Elurra egin du gaur, eta zuri dago kanpoan, zuri eskolako patioa: zuri-zuri; eta zuritutasunaren erdian zuhaitza ere zuri, bakardadean... Gu, aldiz, hemen gaude, barruan gelaren epelean, eskolako berogailua piztuta, Ipuin-kontalariaren zain” (4. orrialdea). Honelaxe hasten da kontakizuna. Eta Ipuin-kontalariak gelan egindakoak, kontatzen dien istorioa eta horren ondorioz umeek egiten dutena ditugu ipuin honen nondik norakoak. Eta, hain zuzen, Ipuin-kontalaria mintzo denean dugu arestian aipaturiko ahozko kontaketa. Kontalariaren ipuinak, ahozkotatunaren formulak eta egiturak erabiliz, irudimena du oinarri, eta horrela, gelan dagoen arbel beltz eta zikinaren ordezkari leihoa, hasieran, eta elurrez zuritutako patioa ondoren, erabiliko ditu arbel moduan. Neskatala batek idatzitako E letra batetik abiatuta elefanteaz, zuhaitzez eta mila kontuz ari den ipuina kontatuko die.

Pello Añorgak sinpletasuna eta irudimena –kasu honetan irudimen horretan guztiz beharrezkoa da irudigilearen ekarpena– darabiltza istorio atsegin eta hurbila kontatzeko. Haurren ikuspuntutik abiatutako narrazioa da eta ederki lortu da haurren begirada, tonua, istorioa kontatzean eta istorioko partaideak izatean. Eta horretarako Añorgak alde batera utzi du beste zenbait lanetan erabili dituen hitz jolasak, errepikapenak, onomatopeiak... Horien ordezkariari eman dio pisua, kontatu nahi den istorioari.

Aurretik ere aipatu dut irudigilearen ekarpena, eta ukaezina da liburu hau egiterakoan, istorio hau kontatzerakoan, idazlearen eta irudigilearen lana aipatu behar direla, biak izan behar ditugula kontuan. Leirek marrazturiko E letra horretatik abiatuta, bi zuhaitz egingo dira, eta gero zuhaitz horren baitan sagarrak... elefantearen istorioa kontatu, osatu, arte. Tonu pastelak, suabeak, erabiliz Mitxelenak ederki islatzen du neguko giroa eta gela barruko berotasuna, baita ipuinaren inguruan sortutako giroarena. Egia, bai, egia... sudur ondoan begia. ■

Giordanoren best-sellerra euskaraz

Azken Durangoko Azokaren atarian eman zuen argitara Alberdaniak Paolo Giordanoren *Zenbaki lehenen bakardadea*. Koldo Bigurik euskaratu du idazle italiarra nazioartean ezagutzera eman duen eleberria. Zenbaki lehenak, elkarrengandik gertu daude, ia elkarren ondoan, baina ez dute inoiz elkar ukitzen.



Zenbaki lehenen bakardadea.
Paolo Giordano.
Alberdania.
323 orrialde.
18,50 euro.

Metafora hori baliatu du Giordanok Alice eta Mattiaren arteko istorioa kontatzeko. Bien bizitzak haurtzaroko gertakari ilunek baldintzatuta daude.

Nerabe direla harreman estua izango dute, elkarrenganako erakarmena... Baina bizitzak oztupo ugari jarriko die bidean, zenbaki lehenen antzera, hurbil baina elkar ukitu gabe egoteko. ■

Sinesgarria al da zientziaren jakintza?

Galdera handi hori aurkitzen dugu John Ziman zientzialariaren *Zientziaren sinesgarritasuna* liburuan. Gaiak argialetxeak eman berri du argitara, Andoni Sarriegik itzulita. Zimanek zientziari egiten zaizkion erasoak aztertu zituen liburu honetan. Fronte askotatik egiten zaio tiro zientziari. Kontserbadoreek erasotzen dute, beldur direlako ezagutzen duten mundu bakarra suntsituko ez ote duen. Eta aurrerakoiek ere bai, zientziak etorkizuneko paradisua pozoituko duelakoan. Demokrata zuhur agertzen da teknikaren zapalkuntza gaitasuna ikusita. Eta aristokratik beldur dio makinaren joera berdinzaleari. Baina, horien aurrean, sendoak al dira zientziaren argudioak? Eztabaidarako oinarriak, liburuan. ■



Zientziaren sinesgarritasuna.
John Ziman.
Gaiak.
277 orrialde. 22 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



4.
Seirte.
Baga-Biga.
Iraupena: 43'04".
11 euro.

Energia eta bizi-poza transmititzeko abilezia

DURANGALDEKO Seirtek denbora luzea darama pop-rocka, power-popa edo energia duten kanta itsaskorrek idazten, eta emaitzak gero eta txukunagoak dira. Gainera, azken bi lanetan kanten abanikoa landuagoa izateaz gain, irekiagoa ere bada. Dena dela, ezin dute ezkutatu rocketik datozela eta horrek erritmo eta indar handiagoa ematen die. Bestalde, musikari gero eta finagoak dira eta igartzen da Jokin abeslaria gero eta askeagoa dela mikrofono aurrean.

Hitzei dagokienez, umorea, beste batzuen hutsunea edo batzueganako premia kontatzen dizkigute gertuko istorioetan. Badira kanta pausatuak ere, baina power-pop gitarreroak eta brit-popak leku handiagoa dute. A, eta taldekideen aldakortasunaren erakusle, lana ixten duen *Basamortuan* pieza lehorra, AEBetako Desert Sessions-etik ateratarakoa dirudiena!

www.myspace.com/seirte

Jokin Elorza - Seirte

«Euskal Herriko pop-rock eta power-pop talde gehienok bide maldatsuetan gabiltza»

Diskoa *Hemen gaude* kanta indartsu eta bat-batekoak zabal-tzen du...

Bada nolabaiteko autoafirmazioa indartsu eta bizirik gaudela esateko. Kanta hori disko honetako zaharrena da, baina hala ere hasieran jarri dugu.



Inoiz *Bakoitien errepi-dean* ikusi duzue zuen burua pop-rocka eta power-pop-a egiten?

Bai. Inoiz ez gara bakarrik egon, baina halako talde gehienok bide maldatsuetan gabiltza; eta Kerobia litzateke salbuespena. Pena da Bide Ertzean, Rafa Rueda eta halako

Aurreko diskoa autoekoiztu zenuten, baina orain Baga-Bigarekin zaude-te...

Bai, beraiekin *managementa* lehendik genuen eta esan ziguten prest zeudela diskoa ateratzeko. Egia esan, polita eta ideala da norberak guztia egitea, baina gogorra ere bada; eta ondo dator laguntza pixka bat.

"Grabitaterik gabe aske izango gara". Non aurkituko dituzue "supernovak"?

Guretzat supernovak aurkitzea da kontzertu batean jendea gu ikuste-

ko gogoz egotea eta konexio handia izatea. Ematen denean, izugarria izaten da.

Gero eta kanta borobilagoak egiten dituzue, eta ahotsak emozio handia jartzen die.

Talde askoren disko onena lehena da. Gu, berriz, hobetuz goaz eta pozik gaude lortutakoarekin. Ahotsari dagokionez, lehen ondo afintzearekin oso arduratuta egoten nintzen; baina beldur hori kenduta, sentsazioak transmititzen saiatzen naiz eta melodiak biziagoak dira.

talde onek ikusle gehiago ez izatea. Elkarrekin gauzak egiten saiatu beharko ginateke.

Hitzetan umorea eta bilaketa uztartzen dituzue. Ezinbesteko osagaiak?

Umorea kontrolatzen saiatzen naiz, berezkoa dut-eta. Ulertzen ez diren hitzak ez zaizkit asko gustatzen, eta nire istorioetan ironia puntua jartzen saiatzen naiz. Bilaketarena berez irten da. Adibidez, *Hilotzarena* kantan kontatzen dut artista bat inspirazio faltan dagoela. Niri hori gertatu zitzaidan eta hala idatzi nuen. ■

Ezpalak

JON TORNER

Unibertsitate euskaldun eta herritar baten aldeko Arabatakada



HILAREN 14AN egingo da Arabatakada jaialdiaren 8. edizioa, Gasteizko Mendizabalako landetan. Jaialdia kualitatibo zein kuantitatiboki handitu da eta makina bat aldaketa dakartza. Jaialdi irekia den arren, hastapenetako izaera unibertsitarioari eusten saiatuko da; Arabatakada Gasteizko campuseko ikasle mugimenduak antolatzen du, eta 600 lagun inguru izango da

lanean boluntario. Aurtengo kartela Ken Zazpi, Su Ta Gar, Kerobia, The Uski's eta Tximeleta talde euskaldunek osatzen dute, La Pulqueria talde valentziarrarekin batera.

Liburu elektronikoak Donostiako liburutegietan eskuragai

DONOSTIAKO Udal Liburutegietan barreiatuta 33 liburu elektroniko daude eskuragai. 15.000 euroko inbertsioa egin du Udalak eta Euskal Herrian aitzindariak dira zerbitzu hori ematen. Aparailu bakoitzak bere memorian 713 lan izango ditu, horietatik 594 gaztelaniaz, 69 euskaraz (Auspoa bildumako liburuak) eta 50 ingelesez. 21 egunez har daitezke maileguan.

Joxantonio Ormazabal (Zegama, 1948) idazle eta editorea hilda aurkitu zuten iragan astean mendialdean. Hamabi urterekin Saturrarango seminarioan sartu zen Ormazabal, eta Donostiakoan gero. Zarauzko ikastolan eta Beasaingo Alkartasuna lizeoan aritu zen irakasle. *Astoa ikusi nuen* idatzi zuen. 1981ean Elkar argitaletxean hasi zen lanean Haur Literaturaren alorrean. Liburu asko idatzia (azkena, *Ehun ipuin bitx gutxitan*, duela gutxi aurkeztu zuen), gehiago itzulia eta are gehiago editatua. Joan zen udaberrian hartu zuen erretiroa editore lanetik



Zain talde bizkaitarrak irabazi du Gaztea Maketa Lehiaketa, *Aitzakiak* izeneko kantarekin. 6.000 euroko saria eskuratzeaz gain, Bilboko BBK Live jaialdian jotzeko aukera izango dute. Entzuleen saria Lorebeltz taldeak jaso du, *Bide bat arrazoi bat* abestiarekin.

Patxi Huarte 'Zaldieroa'

marrazkilariak 2007-2009 artean *Berria* egunkarian plazaratutako 350 komiki tira bildu ditu *De Rerum Natura 3* liburuan (Elkar), horietatik 32 koloretan.



Pedro Mari Otaño bertsolariaren *Bertsu guziak* liburua digitalizatu eta interneten jarri du Gipuzkoako Foru Aldundiak (www.kmliburutegia.net).

● **Kaki Arkarazo musikariak Berrian:** «Gazte jendeak izugarritzko kortozirkuitu informatiboa dauka. Txikitatik entzuten dute musika gehiegi. Guk lau gauza geneuzkan buruan, eta gure nortasunak zeukan eremu askoz ere zabalagoa zabaltzeko. Gazteek hainbeste gauza eta eragin posible daukate buruan, ez daukatela ezer esateko. Jotzen duten edozer gauzak zerbait gogorazten die. Joan beharko lukete denek mendira eta 10 urtez egon ezer entzun gabe. (...) Internetek kristoren kaltea egin dio sormenari, nahiz eta kontrakoa dirudien. Paradoxa beldurgarria da».

● **Maite Agirre antzerki zuzendari eta aktoreak Noticias de Gipuzkoan, Euskarazko Egile Onenaren Max saria jaso ostean:** «Euskal Herrian ez dugu hainbestek idazten, eta Max sariek jartzen duten baldintza medio –antzezlan 30 bider eskaini behar da gutxienez– euskarazko obra kopurua mugatua da. Bizirauten gabilzanok egiten dugu topo (...) Max saria aitorten bat da, dudarik ez, eta konpainia bat poztu egiten da bere lana aintzat hartzen dela ikustean, baina egunean eguneko lanak eta taldeak dute garrantzia; horri esker egiten duzu aurrera».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL GARCIA

Jolas arriskutsua

Room in Rome. Zuzendaria: Julio Medem. Aktoreak: Elena Anaya, Natasha Jarovenko. Espainia. 109 min.

EMAN DEZAGUN nik Alba dudala izena eta zuk Natasha. Zer axola dio izenak, Erroman gau bakarerrako topo egin duten bi ezezagunen artean? Ni Euskal Herrian izango naiz bihar, eta zu Moskun, eta jostatzeko aprobetxatuko dugu gaua, larrua jotzeko, pasioak askatzeko, irri eta kanta egiteko, asmatutako bizimoduak kontatzeko. Baina jolasak eskuetatik ihes egin dezake, gezurrak egiekin nahasten direnean, fikzioa errealtatearekin, sexua sentimendu intimoeekin, eta irriak sufrimendu ezkutuekin. Ezezagun baten sorbalda sarri aproposena baita, barnean daramatzagun ezinegonei bide emateko. Fisikoa, oso fisikoa da Medemen azken proiektua, sexu harremanari garrantzia eskainiz, baina are emozionalagoa da emaitza, ohi duen gisan pertsonen obsesio, sentimendu eta oinazeetan arakatuz.

Horregatik, hoteleko lau paretetatik ateratzen ez den pelikula honetan, bi emakume protagonistek eta euren

elkarrizketek dute ikuskizunaren pisu osoa. Hasierako hizketa bizi eta burutsua, informazioarekin, patuarekin eta irudimenarekin jostari, erritmoa eta indarra galtzen doa pixkanaka, eta eztegia, gozoegia da bukaeran, elkarrenganako maitasuna behin eta berriz azpimarratuz.

Hori guztia, dena den, zuzendari donostiarraren begirada berezitik dago filmatua, eta dogma mugimenduen edo antzezlan baten eszenografia austerorako eгина dirudien lana (bi emakume eta logela bat, ez gehiago), berezkoa duen unibertso bilakatu du Medemek: detaile txikiak eta plano guztiak neurtzen dituen estetika dotorea, edertasuna islatzen duten bi gorputzen protagonismo erabatekoa, emakumeen barne-mundua, argi-ilunak, hautaturiko soinu banda, logelako koadro eta irudien sinbolismoa, komuneko eszena surrealista... *En la cama* film txiletarren *remake* honi bere ukitua eman dio, ukitu mingarria une askotan, arriskutsua delako ezezagunekin jolastea. ■



ATE IREKIAK

etorri aurretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE 2. zikloa

MAIATZAK 20 osteguna - 17:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI

MAIATZAK 13 osteguna - 18:00

IRUN

MAIATZAK 20 osteguna - 18:00


areto nagusian

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

Gaia: Uribe Kostako herriak



Kike Amonarriren umorea

Hondartzan

Gurekoneuketanotengoko mar-kesa pasotxo bat ematen ari da Zarauzko hondartzan, bere urrezko bitxiekin, bere larruzko berokiarekin eta bere zerbitzari aldrarekin. Halako batean, arropa zarpailez jantzitako gizon argal-argala hurreratu zaio:

– Anderea! Hiru egun daramatzat ezer jan gabe!



– Hara! Orduan, dagoeneko, lasai har dezakezu bainua!

Soluzioa

O	A	N	E	I	A									
Z	E	A	B	E										
D	N	E	R	B	E									
A	M	E	A	I	E	R	K	E	Z	N				
A	L	A	I	E	R	K	E	Z	N					
H	E	O	A	U										
O	H	O	A	U										
M	P	A	I	N	F	L	E	E	X					
J	P	A	I	N	F	L	E	E	X					
P	A	I	N	F	L	E	E	X						
E	R	R	E	F	L	E	E	X						
T	A	K												
L	A	B												
M	D	I												
I	E	L												
E	Z	T	A	B	A	I	D	A	G	A	I	K		
K	O	R	K	O	X									
S	A	R	I											

ZIZTADAK



*Erlamandoen lasterketa,
erlauntzara itzulera eta erlezain burutsua.*

*Egin zaitez 3 jolas hauen bidez
erle esploratzaile prestua.*

>>> 5 urtetik gorakoentzat



Eskaerak:

© 943 371 545


www.argia.com

denda@argia.com

Prezioa:

29€

**ARGIAren
harpidedunek:
-%15**



**argia
JOLASAK**

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Txokolatea eta tristura

KALIFORNIAKO IKERLARI BATZUEN ARABERA, txokolate kontsumoaren eta tristura edo depresioaren artean lotura garbia dago.



WWW.FEMINA-TEAM.COM

Archive of Internal Medicine aldizkarian argitaratu emandako artikuluan, 1.000 lagunekin egindako azterketaren ondorioak erakutsi dituzte. Saiakera horretan parte hartutako pertsonak osasun onekoak ziren eta ez zuten depresioaren aurkako tratamendurik jaso. Egindako galdera-sortan, batzuk txokolate kontsumoari buruzkoak izan ziren. Jasotako erantzunetan hiru jokaera nabaritu ziren: batetik, tristura handi samarra izan zuten garaian, oro har, txokolate kontsumoa hileko hamabi tabletakoa izaten zen; tristura edo

depresioa tarteka izan zutenean, zortzi tabletakoa; eta azkenik, tristurarik izan ez zutenean bost tableta jaten zuten hilerok.

Gainera, depresio garaietan pertsona horiek ez zuten beste substantzia piztailerik hartu, hala nola, azukrea, kafea edo elikagai koipetsuak.


Beraz, azterketa honen arabera, depresioak txokolatearekin duen harremana baizik ezin daiteke frogatu, eta ez beste substantziekin.

Eguzkiari so

JOAN DEN OTSAILEAN, NASAk *Solar Dynamics Observatory* (SDO) izeneko behategia espazioratu zuen. Orain gutxi kaleratu dira hark igorritako lehen argazkiak, eta horien bidez eguzkiaren jardura hobeto ezagutuko dela espero da.

Hiru tresna mota daude espazio-ontzian: hamar segundoro 4.000 pixeleko zortzi irudi hartzeko gai diren teleskopioak; eguzkiak emititzen dituen izpi ultramoreak aztertzeko gai diren tresnak; eta eguzkiko eremu magnetikoak kartografiatu ditzakeitenak.

Aspaldidanik dakigu eguzkiaren zikloa hamaika urtekoa dela, hau da, hamaika urtetan jardura handitu egiten du eta hurrengo hamaiketan txikitu. Ea horren zergatia argitzen digun SDOk.



NASA

Ura gezatzeko sistema jasangarriak

Naturak hondamendiak eragiten dituenean, Haitikoa kasu, ur geza eta edangarria lortzea izaten da lehenetariko beharra. Baina ura gezatzea ez da orain arte lan erraza izan; besteak beste, energia asko behar izaten da. Aurkeztu berri den sistema elektrostatikoko baten bidez, uretako gatzak eta mikrobioak bereiz daitezke. <http://ttiki.com/12971> (Gaztelaniaz)

100 pertsonatik bi gai dira aldi berean gidatzeko eta telefonoz hitz egiteko

Estatu askotako legeek espresuki debekatzen dute gidatzea eta telefonoz hitz egitea aldi berean. Ikerlari talde baten arabera, aldiz, populazioaren %2,5ak gaitasuna du telefonoz ari dela ere behar bezala gidatzeko. <http://ttiki.com/12972> (Gaztelaniaz)

Banketxeetako txartelen segurtasuna auzitan

Frantziako Estatuan argitaratu ematen den *Sciences et Avenir* aldizkariako maiatzeko alean kontatzen dute nola erabilia izan zen bertako kazetari baten banketxeetako txartela, PIN akastuna teklatuta ere. Segurtasuna gero eta handiagoa omen da, baina beti topatzen da hura gainditzeko bidea. <http://ttiki.com/12973> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Ehorzketa

Lurrak azpian hartu zain daude negua goxatzeko mandioa betetzen duten artaburuak eman dituzten arto-zuztarrak (*Zea mays*). Lorea, orria, alea, burua... Bazkatarako denak kendu eta gero zuztar soilak ongarritarako ere txar-txo! Lehen ukuiluko azpitarako inaurkin gai ona zen, simaur ederra, gaur egun ordea zuzenean lurpera. Hor daude zain, elkarren gainean, mehe, xuxen, ia hutseraino hustutako kontzentrazio-esparruko eskeleto...



Tipula kontserbante

Bartzelonako Unibertsitatean eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan burutu eta *International Journal of Food Science and Technology* aldizkarian argitaratu eman duten ikerketa batek dioenez, tipulak (*Allium cepa*) dituen gai batzuk, flabonoideak, jakiak kontserbatzeko egokiak izan daitezke. Jakiak alferrik galtzen dituzten oxidazioa eta mikrobioak atzeratzen ditu tipulak. Horrez gain osasunerako ona izanik, tipulak kontserbagarri artifizialen ordezkotza gisa etorkizun oparoa izan dezake.

Paradisuarien akabera

EUSCADIENSIS, VASCONENSIS, NAVARRENSIS... Zer izen ez zaie jarri Euskal Herriko landareei. Hemengoak dela esateko kanpotarren era. Zergatik ez ditugu bertako izenak sustatzen nomenklatura botanikoan? Gutxi batzuk, ale bakan batzuk, bide honetan hasita daude eta gaitzerdi! Hona bi on.

Apium graveolens subsp. *butronensis*. Perrexil-heze izen dotorea baina baita apio zuria edo arbi-apioa deitzen zaion espeziearen subespezie berezia da. Inaki Aizpuru botanikariaren lanari esker zehazki deskribatu eta izendatua izan zen. Plentzian soilik bizi da, Butroe ibaia errio egiten deneko errio-bazterreko lurretan. Istingadi eta padurak lehertuz eta hiritartuz betirako galbidean jarria dugu *butronensis* kasta hau. 2001eko uztailaren 3.224 ale zenbatu ziren. Jabetu gaitzen, berriro esango dut: mundu guztian beste inon ez eta Plentziako paradisuan bakarrik bizi da. Eta betirako hiltzen ari gara.

Astragalus baionensis. Izenak argi dio: baionarra. Itsasertzeko dunetan bizi da, Lapurdin batez ere. Donostian eta Hondarribian ere aurkitu, eta haren aipamena jaso zuen Gandoger izeneko botanikariak 1880an. Plentzian *butronensis*-a betirako galbidera daraman arazo berak hondatu zuen Donostiako eta Hondarribiko baionarra eta egun ez da haien arrastorik ezagutzen. Espezie honen *baionensis* izena Jean Louis August Loiseleur-Deslongchamps jaunak eman zion. 1774-1849 tartean bizi izan zen sendagile frantses honek landare mordo bati izena jarri zion. Landareen sendagaitasunean interes handia zuen eta horri buruzko liburu mordoak argitaratu eman zuen. Baita serikultura edo zeta-harraren hazkunderari eta har horrek jaten duen marugatze arbolaria buruzko artikuluak ere.

Bolaleku S.A.T.
Konpost planta

Bi•lurra
Compost ongarri organikoa

LORE•LURRA
Sustrato unibertsala

Lur begetal ongarritua, ereindakoa, estaltzekoa,
Idor apaingarriak, trabesak.

Bakio bidea, 13 (Emerando)
Tlf.: 94 674 33 55
677 42 64 00
www.bolaleku.com

48100 Mungia
Bizkaia

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Marjorie Mayren 12. urtemuga

CHICAGO (AEB), 1830. Kotex konpresa ekoizleak *Marjorie May's Twelfth Birthday* izenburuko liburuxka banatu zuen bere produktuekin batera. Erabili eta botatzeko zapi sanitarioak 1895ean asmatu zituen Curads & Hartmann's etxeak, eta Johnson & Johnson etxeak ere behin erabiltzeko konpresak merkaturatu zituen. Baina menstruzioa tabua zenez, publizitate-rik gabe produktuok ez zuten arrakastarik izan. Kotexek isiltasuna gainditu eta ama-alaben arteko hilekoari buruzko solasaldiak bultzatzea erabaki zuen, Marjorie Mayren hamabigarren urtebetetzea aitzakia.

Gustura zegoen Marjorie May hamabigarren urtemugaren festa ondorenean, baina kezka bat ere bazuen: "Ama, ez dut ulertzen hain alaia izan ohi den Margaret lehengusina zergatik zegoen hain isilik". Neskatoaren galderak aukera eman zion amari aspaldian alabarekin izan nahi zuen solasaldia egiteko. Baina Margareti gertatzen zitzaionari buruz hitz egin baino lehen ama-alaben arteko harremanaz aritu zen ama: "Lehen ez zituzten igeriketa lasterketak egiten egun ditugun bainu-jantzi erosoetan. Ez zuten sekula tenisaren elkarrekin jokatzeko". Amaren esanetan, "gauza garrantzitsu asko daude 12 urteko neskato batek jakin beharko lituzkeenak, baina, alabekiko intimitate faltagatik, amek jorratu ez dituztenak". Eta, azkenean, lehengusinarekin misterioa "argitu" zion: "Gaur, Margaretten bizitzan lehenengoz, Naturak garbikuntza metodo berria abiatu du berarekin".



Kotex etxeak duela 80 urte argitaratu zuen liburuxkaren azala. Ingeleseko testu osoa www.flickr.com gunean dago eskura.

Alabaren gorputza aldatzen ari zela gogorarazi zion amak eta garbikuntza—edo menstruzioa, testuan parentesi artean agertzen dena—aldaketa horien parte dela azaldu zion. Halaber, "barrutik garbi egotea kanpotik garbi egotea bezain garrantzitsua dela" esan zion eta, horretarako, nola ez, Kotex zapiak erabili behar zituela.

"Eta nola jakingo dut noiz etorriko den berriro?", galdetu zion Marjorie Mayk. Orduan, amak hilekoaren lehen eguna egutegian markatu behar zuela esan zion eta handik 28 egunera berriro etorriko zela.

"Informazio egokia jaso ez duten neskatoek gauza beldurgarriak esango dizkizute menstruzioaz, baina ez diezu jaramonik egin behar tarteka entzungo dituzun ideia eta sineskeriei". Amak jakinarazi zion sineskeria horietako baten arabera hilekoarekin bainu hartzea kaltegarria zela, baina, alderantziz, inoiz baino garrantzitsuagoa zela higienea zaintzea.

"Ama," esan zuen azkenik neskatoak, "eskerrik asko laster biziko dudana esperientzia honen berri emateagatik".

Eguno ikuspegitik testua inuzente samarra eta mugatua izan arren—besteak beste, hilekoaren eta ugalketa funtzioaren arteko lotura aipatu ere egiten ez duelako—berrikuntza handia izan zen duela 80 urte. Kotex konpresak merkaturatu arrakasta lortzen lehenak izan ziren. Eta hilekoaren tabua gainditzeko bide mantsoan urrats bat behintzat egin zuten emakumeek Marjorie Mayk 12 urte bete zituenean. ■

Arrastoak

Panton aulkiak 50 urte bete ditu

VERNER PANTON arkitekto eta diseinatzaile daniarrak altzari berritzailea diseinatu zuen 1960an: bere abizena duen aulkia. Hamar prototipotik gora egin zituen aulkia merkaturatu baino lehen. Lehen bertsioa polisterrezkoa zen eta bigarre-na, iraunkorragoa eta egun oraindik ekoizten dena, poliuretanozkoa. Pieza

bakarrean egindako lehenengo aulkia izan zen, baina benetako iraultza material berriak ekarri zuen. Sormenaren bideak zabaltzeaz gain, plastikoa erabiltzea kostuak merkatzeko baliabide nagusietakoa bihurtu zen. Horrek ez du esan nahi arte-lan hau etxean nahi duenak merke ordainduko duenik: 228 euro balio du.





Amiantoaren kalteak salatzeko LABeko ordezkariak egindako protesta Iruñean.

Amianto

Milaka langile mineral kantzerigenoaren menpe

Azken 30 urteetan amianto mineral kantzerigenoarekin lanean aritu diren 25.000 euskal langile inguru hiltzeko arriskuan dira eta datozen 25 urteetan 6.000tik 10.000ra langile horregatik hilko direla aurreikusten da. 2009. urtean gutxienez 16 langile hil ziren Euskal Herrian amiantoaren ondorioz.

URKO APAOLAZA / DANIEL UDALAITZ

SINETSI EZ ARREN, egia da. Azken 30 urteetan amianto izeneko mineral kantzerigenoarekin lanean aritu diren 25.000 euskal langilek horregatik hiltzeko benetako arriskua dute. Soilik datozen 25 urteetan Euskal Herrian 6.000tik 10.000ra langile amiantoak eraginda hil daitezkeela aurreikusten da, 60.000

inguru Espainiako Estatuan eta 500.000 EBn. 2009an 16 euskal langile hil ziren ekoizpen sektore askotan erabili izan den mineral hiltzaile horren ondorioz. Eta aurten dagoe-neko zortzi langile hil dira. Horrela lanetan aritutako guztiak barne hartzetik urrun egon arren, lan bizitzan zuzenean amiantoarekin aritu

ziren 4.518 langileko errolda egin du Osalanek 2009ko abenduan.

Amiantoaren Biktimen Euskal Elkarte (ASVIAMIE) egunez egun egoera horren jarraipena egiten ari da eta horri esker zenbait urrats garrantzitsu ematen ari dira.

Amiantoak hil egiten duela eta hiltzen jarraituko duela egiaztatuta



Amiantoaren Biktimen Euskal Elkarteko kideek egindako agerraldia, mineralarekin kontaktuan izan diren pertsonek jasaten dituzten kalteak azalduz.

badago ere, oztopo handiak daude gaixotasun profesional gisa onar dadin eta Espainiako Estatuak gaixotasun hilkor hori hartu duten langileekiko dituen betebeharrak ase ditzan. Halaber, bere garaian amianto hiltzailearekin lan egin zuten enpresek eskuak garbitu eta beren erantzukizuna saihestu nahi dute.

Zer da amianto?

Amianto mineral kantzerigenoa da. XX. mendean gehien erabilitako materialetakoa da. Lehen asbestosi kasu egiaztatua –amiantoarekin zuzenean lotutako gaixotasuna– 1906an agertu zen; Ingalaterrako ehungintza sektoreko txarrantxatze lantegi bateko langilea zen. Ordutik kasuak ugaltu egin dira eta 2020 urtean urtero 2.300 heriotza inguru eragin ditzakeela aurreikusten da. Joan den abenduan Florentzian egindako epaiketa batek berriro ere agerian utzi du gaixotasun honen larritasuna eta konnotazio politiko eta enpresarialak.

Hego Euskal Herrian 1960ko hamarkadatik 1980kora erabili zen bereziki. Xaflakorra da, erregaitza eta beroarekiko, korrosioarekiko, hezetasunarekiko eta produktu kimikoekiko oso erresistentea. Osagai fisiko eta kimikoaren propietateengatik eta prezio baxua duelako

erabili izan da material hori hainbeste. Hala, 4.000 aplikaziotik gora izan ditu hainbat sektoretan: erai-kuntzan, industria nuklearrean, automobilgintzan, ontzigitzan, tren-industrian... Sektore horiek garrantzia handia izan dute eta dute

Amiantoak hil egiten duela egiaztatuta badago ere, oztopo handiak daude gaixotasun profesional gisa onartua izan dadin

Hego Euskal Herrian, bereziki Bizkaian eta EAEn. Dagoeneko epaitegietan daude hainbat kasu, hala nola Bilboko Gran Via 1.eko BBVAren eraikuntzarena, edo Bilboko portuko zenbait jarduerena.

Oso mineral kantzerigenoa

Amianto mineral oso kantzerigenoa da. Amiantoaren zuntzak inhalatzean dago arriskurik handiena. Asbestosia, biriketako minbizia eta pleurako mesotelioma gaixotasun profesional gisa onartzen ditu legeak. Baina horiek ez dira amiantoak eragindako gaixotasun baka-

rrak. Material hori arnasketa sistemaren gaixotasun askorekin ere lotuta dago. Horrez gain, giltzurrunetako, obulutegietako edo bularreko minbizia ere eragin dezakeen susmoa dago.

Minerala luzaroan hainbat industria sektoreetan erabili ondoren, 2001ean Espainiako Estatuan erabat debekatu zen amiantoaren erabilera. Hala ere, 2002. urte amaiera arte ez zen erabateko debekua indarrean jarri. Legislazioak, ordea, ez zuen arazoa erotik konpondu, amiantoaren biktimak ez dituelako onartzen, amianto duten eraikinen eta instalazioaren inbentariarik ez delako egin Europako beste zenbait estatutan bezala, eta amianto ezabatzeko lanetan ez delako engaiatzen.

ASVIAMIEk eta sindikatuek amiantoak eragindakoentzat erretiro aurreratuak ezartzea, kalte-ordainetarako funtsa eratzea eta gaixoen tzat ospitale berezia sortzea eskatzen dute. Amianto duten eraikinen eta instalazioen inbentarioa osatzea ere eskatzen dute.

Amiantoak emakumeak ere hiltzen ditu

Orain arte, amiantoak eragindako hildakoez hitz egitean, gizonezkoak aipatzen ziren. Baina mineral hiltzaileak eragindako emakumezko

Beasaingo CAF enpresan amiantoaren aurka

Construcción y Auxiliar de Ferrocarriles (CAF) enpresak Beasainen duen egoitza nagusian lan egin zuten bi langile ohiri lanerako ezintasun osoa onartu die Gizarte Segurantzak. Bi operarioek amiantoarekin lan egin zuten hamarkada askotan eta pleurako minbizia jasaten ari dira egun. CAFek errekarago bat ordaindu beharko die segurtasun neurriak ez zutelako hartu. Horrez gain, langile ohiek epaitegitara joko dute prestazioak handitu eta senideentzako alarguntza lortzeko.

CAFen 1960 eta 1970eko hamarkadetan erabili zuten gehienbat amianto eta 1987an egin zuten lan, azken aldiz, mineral horrekin, S/8000 tren-kotxeak desamiantatu zituzten arte. Dena den, enpresako hainbat tokitan oraindik badago amiantorik eta leku horiek identifikatu nahian ari dira langileen laguntzaz. Beasaingo enpresak onartu du gutxienez 147 langile amiantoak kutsatzeko arriskuan egon zirela; horietako asko aurrejubilatutako daude eta beste batzuk lanean ari dira oraindik. Hala ere, enpresa batzordeko prebentzio ordezkarien arabera gehiago izan litezke amiantoarekin lan egin zutenak eta horregatik eskatu dute zerrendan sartzeko CAFen 1960 eta 1992 artean lan egin zuten pertsona guztiak.

45 hildako gutxienez

Bai Beasaingo lantegian eta bai Zaragozakoan 2009 arte 45 langile hil ziren amiantoak sortutako gaixotasunekin. LABeko Imanol Urrestarazuren arabera seguru



Amiantoarenei Patxi Epelde artistak egindako eskulturaren inaugurazioa Beasainen; CAFen amiantoak hildako langileen senideak izan ziren.

daude gaixotutako pertsona gehiago egon litezkeela "baina ezezagutzagatik, edo beste arrazoi batzuegatik, ez dute mineral kantzerigenoarekin izandako harremana erreklamatu, eta beraz, ez dira zerrenda ofizialetan agertzen".

Iazko urtean zehar hainbat ekimen egin zituzten CAFen amiantoak hiltzen segitzen duela salatzen. Apirilaren 28an langileek manifestazioa egin zuten Beasaingo kaleetan barrena, eta horren segidan *Amiantoarenei* izeneko eskultura jarri zen, hildako langileei eta haien senideei elkartasuna adierazteko. Horrez gain, hitzaldia antolatu zuten eta informazio kanpaina jarri zuten martxan, amiantoarekin lan egin zuten langile ohiak identifikatzeko.

ARGAZKI PRESS / JON URBE

langileak ere badira. Angela, Oxivol Internacional de Acumuladores enpresako langile ohia, pasa den martxoan hil zen Beasainen, 65 urte zituela. Bere enpresan amiantoak kutsatuta, pleurako mesotelioma hartu zuen. 21 urte zituenetik autoen bateriak muntatzen lan egin zuen: bateriei amiantozko lokarri bat jartzen zien, estalkia ipini eta galipotaz estali baino lehen.

2009an gutxienez Euskal Herriko 15 langile hil ziren amiantoaren eraginez, ASVIAMIEk jakinarazi dituen datuen arabera. Iazko azken hildakoa Josu Murua Cayero izan zen, 41 urteko gorliztarra (Bizkaia). 2009ko abenduaren 18an zendu

zen, pleurako mesoteliomak jota. Gaixotasuna marinel zela amiantoarekin lan egin zuen lehen urtetan

Amiantoak emakumeak ere hiltzen ditu: Angela, Oxivol enpresako langilea, pasa den martxoan hil zen Beasainen, 65 urte zituela

harrapatu zuen. Azaroko bigarren hamabostalditik aurrera ohean egon zen Gorlizko ospitalean, minbiziak bizkarrezur-muina hartu eta paralizatuta geratu zelako. Bizirik zela

itsasontzietan, amiantoarekin lan egiten zutela adierazi zuen, mineral kantzerigenoaren arriskuen berri inork eman gabe.

Amiantoaren azken biktimak 41 eta 52 urte bitarteko pertsonak dira, aipatu berri dugun kasua, esaterako. ASVIAMIEko arduradunen aburuz, egoera berria arazoaren larritasuna agertzen ari denaren seinale da. Egoera larria dela erakusten duen beste datu bat ere bada: 2009an ehundik gora familia hurbildu dira elkartera, senitarteko bat amiantoak eraginda zegoelako. Izan ere, mineral kantzerigenoak gaixotutako 350 pertsonatik gora daude dagoeneko elkartea. ■

Jesus Uzkudun

«Tristeena Osakidetzako zenbait medikuren jokabidea da»

Hernaniko Orbegozo lantegian amiantoa erruz arnastu zuen Jesus Uzkudunek (Hernani, 1949).

Orain, erretiroa hartzeko garaia heldu bazaio ere, erronka da beretzat minbiziarekin zerikusia duten lan gaixotasunei “beste buelta bat” ematea. CCOO sindikatuaren EAEko lan osasun eta ingurumeneko arduraduna da.

Duela mende bat jakin zen amiantoa toxikoa zela. Nola da posible oraindik langileak bere arriskuaz ez jabetzea?

Gu amiantoarekin lanean jardun eta fabrikatik zuri-zuri ateratzen ginen, inongo neuririk gabe. Gero, hasten zara pixka bat begiratzen eta konturatzen zara zer den, batez ere gaixoak ikusten dituzunean, eta zoritxarrez asko ezagutu ditut. “Kontuz, istripua!”, esaten da gure herri honetan, baina lan gaixotasunekin ez dago prebentzio kultura hori, nola ez den kolpean gertatzen...

Administrazioa gehiago inplikatuko beharko litzateke gaixotasunari behar den garrantzia emateko?

Kontzientiazio horretan gehien laguntzen ari direnak gaixoak berak dira. Gogoratzen naiz Jose Luis Aranburuz, Ezequiel Ilarramendiz... egunkarietan beren historia kontatu zutenean, horrek bai, horrek dardara sortu zuen gizartearen.

Langileek arazoak dituzte amiantoa-ekin gaixotu direla frogatzeko, batez ere mesotelioma ez denean. Zer egi-ten dute erakunde publikoek lagun-zeko bidean?

Ahal bada oztopatu. Niri goi funtzionari batek esan zidan: “Jexux, ari zara alarma soziala sortzen”, erantzun nion nik ez ditudala gaixotzen,



U.A.

“Kontzientiazioan gehien laguntzen ari direnak gaixoak berak dira”.

niregana gaixotuta etortzen direla. Administrazioak huts egin du urte askoan, ez du amiantoarekin ardurarik hartu eta orain ez du inongo borondaterik hori azaleratzeko.

Medikuek zer diote?

Medikuek azterketa batean galde-tzen dute zenbat erretzen duzun, ea edaten duzun... baina gutxiak galde-tzen dute non eta zerekin egin duzun lan. Duela hiru mende Ramazzinik zioen: “Gaixoarengana joatean galdeiozu zein den bere jan-gaiaren iturria, bere gaixotasunaren jatorria hor egon litekeelako”.

Dena den, tristeena da Osakidetzako zenbait medikuren eta zuzendaritzaren jokabidea. Badaude zorionez mediku batzuk gaixotutak sindikatuengana bidaltzen dituztenak, baina beren obligazioa hori baino harago doa, Gizarte Segurantzari parte eman beharko lioke lan gaixotasun bezala onartzeko, eta ez dute egi-ten.

Zergatik? Zeren beldur dira?

Konpromisorik ez hartzea-gatik. Batzuetan gertatu da lekuko eraman dituztela epaiketetan, eta hori baino lehenago nahiago dute eskuak garbitu.

Osalanekin plan bat onartu duzue, zehaztu iezaguzu ber-tan jasotakoa.

Planak dio ahalik eta gehien zabaldu behar direla mediku azterketak amiantoarekin lan egin dute-nentzat, zainketa hori egin behar da. Gertatzen dena da amiantoarekin ez dagoela inbentario bat egin-da, horregatik udaletxe askori eska-tu diogu amiantoa non dagoen aztertu dezala.

Amiantoaren mapa bat.

Iparraldera joaten bazara, edo Fran-tzian etxe bat erosi nahi baduzu, erosteko orduan esaten dizute etxe horrek amiantoa duen edo ez. Hego Euskal Herrian ez dago horrelako konturik, ez dira maparik egi-ten ari.

Silikosia, hurrengo epidemia

"Ikusi da amiantoaz gain, badagoela ezkutuan antzekoa edo okerragoa den beste epidemia bat: silikosia" dio Jesus Uzkudunek. CC00ek apirilaren 28an salatu zuen iaz bikoiztu egin zela Espainian silikosiak gaixotutako langileen kopurua. Silikosia silize kristalinoa arnastean sortzen da eta minbizia eragin dezake biriketetan. Batez ere harrigintzan, beirategietan eta zeramika lantegietan ematen da silikosi kasu gehien.

Duela gutxi Bermeoko marmolgintza enpresa bateko langileen %60ak silikosia duela jakin da. Uzkudunen esanetara "eskandalu bat izan da, horren inguruan txapuz handiak agertu dira". Marmolgintza horretan 19 urtez aritu dira langileak Silestone eta Caesartonearekin lanean beharrezko informaziorik eduki gabe eta Osalanek zigortu egin ditu enpresako prebentzio zerbitzua eta harri marka horien fabrikatzaileak.

Orain arte amiantoaz lotzen genuen siderurgia, trenbide eta horrelako lantegiekin. Baina orain beste leku batzuetan ere gaixotu da jendea amiantoagatik, BBVAn, arrantzontzietan... Noraino dago kutsatzeko arriskua?

Nik ez nuke alarmista izan nahi, baina gauza serioa da. Bilboko BBVA 1965ean egin zen eta amiantoarekin forratu zuten estruktura guztia, horko elektrizistak amiantoarekin kontaktuan egin zuen lan eta orain gaixotasuna agertu da. Gauza bera gertatzen da Gurutzetako ospitalean. Amianto eskolatik hasi eta etxeko sukalderraino egon liteke, oso zabal-duta egon da.

Hain zuzen, Donostiako festiba-lean amiantoaren inguruko dokumentala estreinatuko da. Pertsona batzuk konturatu ziren beren ama mesoteliomarekin hil zela. Kasualitatez, Errenteriako Paisa fabrika ondoan bizi ziren; urte horietan bentiladore baten bidez amianto-hautsa fabrikatik kanpora botatzen zuten eta dena ondoko balkoira joaten zen. Denbora batera, ama hil egin zen. Hortik sortu da pelikula hori egiteko mugimendua.

Zein da enpresen eta mutuen jarrera?

Enpresa gehienei ez zaie horrenbeste inporta lan gaixotasun bat onartzea; arazoa da hori onartu ondoren guk beti errekaragoa eta kalte ordainak exigitzen ditugula.

Bestela nola bultzatuko dugu prebentzioa? Hemen ez balego municipalik gaizki aparkatzen dutenei multak jartzeko, hau erokeria litza-teke... Enpresek eta mutuek bada-kite hori etorriko dela eta horrega-tik egiten dute ahalegin guztia dena estaltzeko.

"Zenbait epailek horrela jarraitzen badute, senideek mobilizazioak bultzatuko dituzte haien aurka"

Kaltetuentzako konpentsazio fondo bat eskatu duzue. Hori da soluzioa?

Beharrezkoa da. Posible da guk, esaterako, Sidenor "harrapatzea", baina beste askorekin ezin da. Zuk tailer txiki batean kotxeen frenoak aldatzen egiten baduzu lan eta gaixotasuna sortzen bazaizu, zeini erreklamatu diozu? Eta bestetik badago jende pilo bat autonomia izan dena, horiek ez dute eskubiderik ezta lan gaixotasun bezala onartzeko ere. Kristoren injustizia dago hor. Horregatik ari gara esaten Estatua bera ere arduradun dela eta Estatuak sortu behar lukeela konpentsazio fondoa. Talidominarekin sortu du eta bere garaian olio-arbia-ekin ere bai, ba sortu dezala amiantoarekin ere.

Esan duzu enpresek auzia estaltzera jotzen dutela. Patronalaren jokabide horrekin elkarriketa sozialeko mahaitik zerbait ateratzea espero duzue?

Bai, eta pena da mahai horretan beste erakunde batzuk ez egotea. Hurrengo hilabeteetan akordio batetara iristea espero dugu lan gaixotasunen inguruan. Alde batetik prebentzio zerbitzuek beren lana ondo egin dezatela akordatu nahi dugu, eta bestetik kanpaina bat egingo da.

Baina hori nahiko eramangarria da enpresentzat... Kalteordainak beste kontu bat dira.

Maila horretan ere hitz egin da, baina Euskadin bakarrik fondo bat sortzea... zerbait zabalagoa behar da, Estatuak duelako ardura.

Azken aldian gaixotuen aldeko sententzia asko izan dira epaitegietan, holako gehiago egotea espero duzue?

Espero dugu baietz. Baina salatu nahi nuke zenbait juezen jarrera, eta batez ere Gipuzkoako Bandres epailea. Gizarte Segurantzak eta guzti onartutako lan gaixotasunekin, joaten gara epaitegira eta berak esaten du: "Ez, nola ez zegoen inongo legerik, enpresak ez zuen ezer kunplitu behar". Hori salatu beharra dago eta zenbait epailek martxa horretan jarraitzen badute gaixoen senideek mobilizazioak bultzatuko dituzte haien aurka. ■

Babeslea:



Euskal Herria, garapen jasangarriko unitatea
Euskal Herria Europako Batasuneko hego-mendebaldeko nazioa

Eragile ekonomiko eta sozialen sarea
Zatoz zu ere, EGIN ZAITEZ BAZKIDE. www.gaindegia.org

Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
gaindegia@gaindegia.org • 943 304 365



Euskal Herria ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatoire pour le développement économique et social de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

Bernat Joan i Mari

Kataluniako Hizkuntza Politikako idazkari nagusia

«Borondatearen esku uzten bada, hizkuntzari biziraupena ukatzen zaio»

2007ko hauteskunderen ondotik, Generalitateko Hizkuntza Politikako idazkari izendatu zuten Bernat Joan (Esquerra Republicana). Legealdia bukatzeaz orain, azken urteetako lanaren balantzea eta katalanaren gaur egungo diagnostikoa egiteko eskatu diogu.

ARITZ GALARRAGA

Argazkiak: Nuria Juan



“Gaztelania ez dago inolaz ere jazarria Katalunian. Egin proba, atera kalera”.

Parlamenturako hauteskunde urtea duzue aurtengoa Katalunian. Zein da idazkaritzak azken legealdian egin duen lanaz duzun iritzia?

Balantzea egin baino, Gobernuaren lana aurkeztuko dizut. Alde batetik, hizkuntzari aplikaturiko teknologien legealdia izan da: kontsulta linguistikoen zerbitzu bateratua, Optimot, sortu dugu, dozena erdi luze itzultzaile automatiko ditugu dagoe-neko sarean eta katalana ikasteko ingurune birtuala jarri dugu martxan, 40.000 izen emanda dituen Parla.cat. Eta beste alde batetik, harrera linguistikoak markatutako legealdia izan da, etorri berriek katalana ikasteko bideak izan ditza-ten egin dugu lan (2000. eta 2010. urteen artean milioitik gora lagun etorri dira Kataluniara). Ondorioz, *Consorti per la normalització lingüística* asko hazi da, hasierako 60.000 ikas-letik, gaur eguneko 126.000ra. Biko-te linguistikoek ere bultzada handia izan dute, 4.000 inguru ziren hasie-ran eta 10.500 baino gehiago iaz. Programa hasi genuenetik 2003an, 50.000tik gora izan dira bikoteak.

Eta legegintzari dagokionez?

Hizkuntza Politikako Idazkaritzak egindako bi lege onartuko dira legealdi honetan, Parlamentuan daude dagoeneko, eta, ez du ematen, baina konplikatuak izan dira oso: Zeinu Hizkuntza Katalanaren legea eta Okzitanieraren legea. Ez ahantzi okzitaniera Vall d'Araneko hizkuntza propioa dela, eta Estatu-tu berriarekin lortu dugu okzitanie-ra ere Kataluniako hizkuntza ofizial izendatzea. Eta Idazkaritzarenak propio diren bi lege horiez gain, legealdi honetan oso garrantzitsuak diren beste bi legetan parte hartu dugu: Hezkuntza legean, Alderdi Popularrak Konstituzio Auzitegira eramane duena, eta Zinemaren legean, garrantzitsua hau ere, eta oraindik onartzeko dagoena. Alor

linguistikoan parte hartu dugu bi kasuetan.

Aurrerago helduko diegu azken bi lege polemiko horiei, baina, zure agintaldia hasi zenean esan zenuen lehen helburua haxe zela: kataluniar-rrak hizkuntza aukera berdintasu-nean egotea. Nahikoa aurreratu al da zeregin horretan?

Norabide horretan joan gara. Hiz-kuntza politika lehen mailako gizarte politika dela ulertzen dut eta gober-nu aurrerakoi batek lortu behar

Zinemaren legeaz: "Ekaitza baretuko da erakusleek zinema katalanez izanda dirurik galduko ez dutela ikusten dutenean. Azken batean, kezka hori baitute teorikoki"

duena da hiritarrak aukera berdinta-sunean egotea gizartearen parte har-tzeko. Eta egia bada ere gaur egun Katalunian katalana jakin gabe bizi daitekeela, ez da egia katalana ez dakienak baldintza berdintasunean parte har dezakeela gizartearen. Beraz, guk egin behar duguna da katalana ezagutzen ez dutenei bidea erraztea hizkuntza ikas dezaten.

Azken urteotan katalan hiztunen kopuruak gora egin du, baina oraindik orain badaude katalana komuni-kazio hizkuntza neutroa izatea gala-razten duten errotiko arazoak. Adibidez, erabilera.

Nondik gatozen ere ikusi behar da. Katalana hizkuntza konnotatua da, Estaturik gabeko hizkuntza guztiak diren moduan. Legalki eta politiko-ki beste hizkuntza bat gainetik izan duen eta duen hizkuntza oro bezala, derrigor. Horri aurre egiteko bide

bakarra hizkuntzaren aurreratze sozial eta politikoa da eta horrexe-gatik gertatzen da katalanarekin egoera paradoxiko hau: katalana normaltasunez erabiltzea konnota-tuago dago Balear Uharteetan Katalunian baino, konnotatuago dago Valentzian Balear Uharteetan baino eta Franja de Ponenten Valentzian baino. Zergatik? Hiz-kuntzaren ahultasuna diferentea delako leku bakoitzean eta ahulago den lekuetan konnotatuago dagoe-lako. Katalana hizkuntza neutroa izan dadin egin dezakegun onena da, beraz, gizarte erabilera aurrera-tzea, eremu guztietara zabaltzea.

Eta aurreratze horretan erronka han-dienetako bat azken urteotan kanpo-tik etorri diren eta etortzen ari diren pertsonak dira. Zer egiten ari zarete horiek katalanera gehi daitezen?

Oinarritzkoa da hori guretzat. Harrera linguistikoa gure helburue-tako bat da eta horrexegatik lantzen dugu Immigrazio Idazkaritzarekin, eskualdeetako Kontseiluekin, uda-lekin, tokian tokiko erakundeekin. Harrera linguistikoan izena eman-dako 87.000 lagun ditugu oraintxe bertan. Lehentasunen artean dugu eta baliabide asko eskaintzen diz-kiogu. Oinarritzkoa da pertsona bat hona iristen denean hizkuntza ikas-teko baliabideak izatea.

Quim Monzó idazleak sarri aipatzen du katalana gaztelaniaren baitan urtuko ote den, patois moduko bat bihurtzeraino. Gero eta gehiago hitz egiten dela katalan kaskarra, ia gaz-telaniaz, baina hitz katalanekin. Baduzue kezka hori?

Bai, baina ez hainbestera. Azal-duko dizut: hizkuntzaren arautegia zaintzen duten erakundeak ditugu, Institut d'Estudis Catalans, adibi-dez. Eta guk ere badugu partzuer-go, Termcat, termino berriak aha-lik eta egokien jaso eta

Babeslea: UPV/EHU

UPV/EHU

30 urte irakasten eta ikertzen,
milioi laurden profesional
euskal gizartearen zerbitzura.

www.ehu.es

artearen historialariak • interpreteak • zuzendariak • gizarte langileak • epaileak • kriminologoak • gizarte hezitzaileak • biokimikariak • zaharberritzaileak • geologoak • teknologoak • politologoak • itsasariak • grabatzaileak • medikuak • arkitektoak • ingeniariak • kazetariak • erizainak • psikologoak • diseinatzaileak • ingeniari teknikoak • kimikariak • biologoak • fiskariak • historialariak • filologoak • itzultzaileak • irakasleak • matematikariak • artistak • odontologoak • pediatriak • ekonomialariak • enpresariak • abokatuak • fiskalak • ikerlariak • pedagogoak • logopedak • eskultoreak • farmazialariak • margolariak • soziologoak • geografoak • topografoak • aparejadoreak • hizkuntzalariak • zirujauak • kardiologoak • filosofoak • antropologoak • forentseak • idazleak • publizistak...



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea



"Arriskutsua iritzi zitzaion hezkuntza lerro bikoitz edo hirukoitzak ezartzeari, horrek nolabait mundu ikuskera ezberdinak sor zitzakeelako".

estandarizatzearaz arduratzen dena. Egia da existitzen dela kalitate baxuko katalana erabiltzen den eremua, baina uste dut hobe dela hori eta ez katalana eremu horretatik kanpo geratzea. Hasiera fase bat egon behar da hizkuntzaren ikasketa prozesuan, eta kontu handia izan behar dugu nori eskatu behar zaion kalitate maila jakin bat. Administrazioak izan beharko luke, dudarik gabe, edo komunikazio munduak, kazetariak, publikoari zerbitzua eskaintzen dion edonork.

Lehenxeago aipatu dituzun legeei dagokienez, garrantzitsua den bat utzi duzue legealdi amaierarako, Zinemaren legea. Zer iritzi duzu sortu duen kalapita guztiaren gainean?

Neurriz kanpoko iruditu zait, erabat, eta neurri batean erakusten ditu

katalanak gure gizartean dituen ahuldadeak. Lanak izango nituzke antzeko kalapita bat imajinatzen Hungarian, edo antzeko legea duen Quebecen. Dena den, ekaitza bare-tuko dela iruditzen zait, erakusleek zinema katalanez izanda dirurik galduko ez dutela ikusten dutenean. Azken batean, kezka hori baitute teorikoki, dirurik galduko ote duten. Eztabaida honek 80ko hamarkadakoak ekarri dizkit gogorra: TV3 telebista katearen hasieretan eztabaida zen ea *Dallas* telesailan katalanez egin behar zuten. Edo, orokorrago, hezkuntzak eta komunikabideek katalanez izan behar zuten, gaur egundik ikusita eztabaida erabat zentzurik gabeak. Halakoxe zerbait gertatuko dela uste dut Zinemaren legearen ingurukoekin.

Arazoa izan daiteke maiz aldaketak ez direla behar beste azaltzen; kasu honetan, zinema enpresarien mezua askoz ere garbiago iritsi da.

Ñabardura gutxiago duen diskurtsoa baita. Guk gobernu ekintza ustela egingo genuke horiek baino ñabardura handiagoak dituen mezua zabalduko ez bagenu. Enpresarien mezuak, aldiz, erabat lauak izan dira, greba, kaosa, apokalipsia...

Baina mezu hori iritsi zaio hiritarrari, katalana inposatzera datoz hauek, komertzioak katalanez errotulatzearen kasuan bezala.

Oso zaila da hori indargabetzea. Pentsatzen dut praktikarekin baino ezin zaiola horri aurre egin, normal jokatzuz eta aurrera eginez, eta horrelako mezuen tranpan ez eroriz. Esan beharra dago komunikabide batzuk, gutxi baina eragin handikoak, Zinemaren legea boikotatzen saiatu direla, Gobernu kideen arteko balizko desadostasunekin petrolio ateratzeko. Kazetaritzaren funtzioa gainditzen du horrek.

Batzuek esango dute, zergatik ez egin boluntario katalanaren erabile-ra?

Bada, bi egunen buruan bazterrean geratuko litzatekeelako eta orduan bai bilakatuko litzatekeela, Quim Monzó dioen bezala, patois. Hizkuntza borondatearen esku uztea, besteak Estatu osoaren laguntza duen bitartean, hizkuntza horren bizirautea ukatzea da.

Jazarria dago gaztelania Katalunian?

Ez, inolaz ere. Egin proba, atera kalera. Besterik ez dizut esango, paseatu ezazu pixka bat. Bakar-bakarrik konbentzituko zara.

Euskal Herrian, interesgarria egiten zaigun gauzetako bat da hizkuntza eredu bakarria egotea hezkuntzan.

Hizkuntza eredua aukeratu aurretik, beste kontu garrantzitsu bat argitu behar izan genuen hemen. Bere garaian arriskutsua iritzi zitzaion hezkuntza lerro bikoitz edo hirukoitzak ezartzeari, horrek nolabait mundu-ikuskera ezberdinak sor zitzakeelako. Beraz, gizarte kohesioaren alde, ulertzen zen elkarrekin bizi behar bage-

nuen elkarrekin hezi behar ginela eta hezkuntza sistema orokorra behar zela, balio partekatu batzuetan, eta Kataluniako populazio eskolatu guztiarentzat komunak behar duten aspektuetan, oinarritutakoa.

Gero erabaki zen hezkuntzako komunikazio hizkuntza katalana izatea, arrazoi sinple bategatik: bestela ez dira lortzen legeak jarritako helburuak, hau da, hiritar guztiak gutxienez elebidunak izatea. Mundu guztiak katalana eta gaztelania berdintasunean menperatzea ezinezkoa da sistema elebidunean, are gutxiago gaztelania nagusi den hezkuntza sisteman. Europako Hizkuntza Gutxituen Kartaren jarraipena egin zenean, balorazio oso positiboa izan genuen, esan ziguten mundu guztiak bi hizkuntzak menperatzeko bidean zihoala gure eredu.

Helburua betetzen duen eredu da, beraz, hizkuntza bakarreko hezkuntza sistema?

Bada, hori ere ez. Gehiago gerturatzan da, baina hezkuntza sistema katalanez izanda ere, gabezia gehien dituen hizkuntza katalana da, pertsonen hizkuntzarekin kontaktua duten eremu bat baino ez baita hezkuntza, eta erabilera dentsitateagatik jendeak gehiago menperatzen du gaztelania katalana baino. Baina pentsatu hezkuntza sistema desberdina balitz, hizkuntza lerro bat baino gehiagokoa, diferentzia are handiagoa litzatekeela. Argi ikus dezakegu hori Valentzian: katalanez ikasten duten ikasleek bi hizkuntzak menperatzen dituzte, eta valentziera ikasgai gisa dutenek aldiz, katalana eta gaztelaniaren ezagutza maila desorekatua dute, erabat.

Ezagun dugu guk ere...

Euskal Autonomia Erkidegoa leku ona da ereduaren araberako emaitzak ikertzeko. Ezagutza gehien D ereduko ikasleek lortzen dute, gauza jakina da, eredu elebidun eta gaztelaniakoan zailagoa da. Hori ez da abertzaletasun epidermiko, konstatazioa baizik.

Tarteka izaten da zuenean murgiltze linguistiko horren aurkako zaratarik. Bai, gaztelania hitzunen balizko eskubideen defentsa egiten dute

batzuek, baina ez dute kontuan, eta akats larria da, lehen eskubidea ezagutzarena dela, norberak gizartearen garatzeko beharrezko tresna guztiak edukitzearena. Hau da, pertsona batek ez badu ahalbidetzen bere seme-alabek katalana ezagutzea gainontzeko pertsonen maila berean, gabezia bat sortzen ari da

**"Alderdi politikoei
Estatukoa ez den
hizkuntza batek hitzun
gehiago dituen lekuan
jarrera malguagoa dute
eta hitzun gutxiago
dituen lekuetan
gogorragoa"**

seme-alaben hezkuntzan. Nire ustez eskaera erabat arduragabea da, diferentziak markatzen baititu. Pentsa dezagun momentu batez, osorik gaztelaniaz litzatekeen irakaskuntzan atentzio berezia eskatuko banu nire alabentzat katalanez. Eta, gutxi, baina bada hori egiten duen jendea.

Akaso Katalunian ez duzue beste hainbat lekutan izan dezaketen gerra linguistikorik, adostasuna handiagoa da gai horretan. Estatu mailako alderdietako jendeak ere katalanez hitz egiten du hemen. Sentsibiltzatuago daude hizkuntzarekin edo egoera soziopolitikoak behartzen ditu horretara?

Estatuko alderdiak moldakorrak direla esango nuke. Estatukoa ez den hizkuntza batek hitzun gehiago dituen lekuan jarrera malguagoa dute eta hitzun gutxiago dituen lekuetan gogorragoa. Beraz, ez da sukurtsal katalanen meritua, ez bada testuinguruak behartutako jarrera. Alderdi Sozialistaren baitan, oro har, egiten ari garen hizkuntza politikaren aldekoak dira nagusiki. Alderdi Popularraren baitan bada erabat kontrakoa den sektorerik, eta ondo bistan daude, baina egia da normalki katalanez funtzionatzen duten sektoreak ere badaudela.

Aurrera daramazuen hizkuntza politika baldintzatua dago, noski, egungo marko politikoagatik, eta adostua gobernu kideekin; ez da Esquerrak egin nahiko lukeena.

Kataluniako Gobernuaren hizkuntza politika egiten ari gara, bai. Gehiengo absolutua bagenu Parlamentuan hizkuntza politikako lege berria egingo genuke, askoz urrunago joango ginatke orain ukitu ere egin ez ditugun hainbat arlotan. Baina, idazkari bezala, kontziente naiz PSC, Esquerra eta Iniciativaren artean adostutako hizkuntza politika egin behar dudala, eta ez alderdiarena. Gainera, ahal izan dugun guztietan *Convergència i Unió* alderdiarekin adostu izan ditugu gauzak. Hori eskertu nahi diot oposizioeko talde nagusiari, erraza izan da haiekin adostasunetara iristea. Eta horrek bide batez indartsuago egin du gure hizkuntza politika.

Zer moduzkoak dira harremanak katalanez hitz egiten duten gainontzeko lurraldeetako administrazioekin?

Bada azpimarratzeko gauza bat: gobernu aldaetarekin Balear Uharteak berriz sartu dira Ramon Llull institutuan. Gaur egun, Llull institutuaren bitartez egiten dugu kultura eta hizkuntza katalanaren kanpo proiektzioa, batera, Andorra, Katalunia eta Balear Uharteetako gobernuen artean. Institutu berean daude Valentziako hainbat herri, Xàtiva, Morella, Sueca eta Gandia tartean, Perpinyako Udala, Ekialdeko Pirinioetako Kontseilu Nagusia eta Sardinia irlako Alguer hiriko Udala. Kanpo proiektziorako sare bat osatu dugu, baina baita barne harremanetarako ere. Kataluniako eta Balear Uharteetako gobernuen arteko harremanak errazak dira eta instituzioen arteko erlazioa hain estua ez denean, Valentzia kasurako, instituzioek egiten ez dutena, gizarte zibilaren bitartez egiten da eta ahal dugun neurrian laguntza ematen dugu. ■


Katalanaren egoeraz eta etorkizunaz segiko dugu datozen bi asteotan.

Albert Pla *Avui* egunkariako edizio burua eta **Albert Branchadell** filologo elkarriketatuko ditugu.

Mintza Eguna Arrasaten

EKAINAREN 6AN Arrasaten egingo du Topaguneak, Euskara Elkar-teen Federazioak, mintzalagunak, berbalagunak eta mintzakideak elkartzeko festa. Gipuzkoako

Arrasateko mintzalagunek Euskal Herri osoko mintzakideei ongi etorria egingo die eta egun osoko festa egitaraua izango dute ondoren. 2006an egin zen lehenengo Mintza Eguna Iruñean. Ondoren Donostia, Getxo eta Gasteiz izan zituzten topaleku. Aurtengoa bosgarren edizioa da.



Euskararen Eguna Nafarroa Beherean

LEHEN ALDIZ Euskararen Eguna izango da Nafarroa Beherean maiatzaren 23an. Garazi-Baigorri, Iholdi-Oztibarre eta Amikuzeko herri elkargoek bat egin dute Euskararen Erakunde Publikoarekin eta Donapaleun egun osoko festa izango da.

BAHEA

Leire Narbaizak Kalamuatik Txargainera blogean esanak: “Adierazpen horiek irakurri nituenean [Patxi López lehendakariak bere euskara eskolez egindakoak] nire ikasleekin akordatu nintzen, eta euskaltegieta-ko ikasle guztiekin. Euskara ikasi duten denekin. Zenbait langabezian, beste batzuk prekarioan. Baita euskara ikastera derrigortuta daudenak ere. Zintzo-zintzo egunero joaten direnak, baita euren urtebetzeetan ere. Esfortzu ikaragarria egiten dutenak ikastearren, huts ez egitearren, lanetik zuzenean etorritak, familia alde batera lagata. Zer pentsatzen ote dute? Euren musturretan barre egiten die euren lehendakariak. ‘El de todos.’”



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Kapitalismo basatiaren errezetak

Greziaren “erreskateak” Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) eta Europar Batasunaren (EB) eskutik, jadanik sortu ditu langile mobilizazioak eta hiru hildako. “Erreskate” horrentzako beraien errezetak ezagututa –kapitalismo basatiak berezko dituenak–, antzeko “erreskateak” izan ditzaketen estatuei zer espero dakiekeen asma dezakegu. Litekeena da NDFk eta EBk bisturia hurrena Portugal, Irlanda eta Espainiako Estatuari sartzea. Zer ekarpen egin die NDFk eta EBk Greziari? Hiru urtean 110.000 milioi euro ekarriko lituzkeen Greziaren finantza erreskatea aktibatu dute, eta horietatik 80.000 milioi, euroguneko estatuetatik etorriko dira. Espainiako Estatuak 9.792 milioi euro jarriko ditu, horietatik 3.672 milioi euro 2010eko maiatzaren 19a baino lehen liberatuko dira.

Zein dira greziarrek “laguntza” kapitalista horren truke eman beharreko ordainak? Betikoak: funtzionario publikoen soldatak %16 jaistea; hiru urtetan soldatak izoztea; funtzionarioen kontratazioak etetea; pentsioak murriztea hurrengo hiru urteetan, pagak izotzuz eta bi paga berezi kenduz; jubilatze adina handitzea; kotizatze epea handitzea; presio fiskala handitzea; erreforma laborala... Aldiz, bankak, finantza krisiaren ardura-dun nagusiak, 17.000 milioi euro jasoko ditu bere likidezarako. Horiek dira ordain kapitalista basati eta antisozialak. Horretan ari dira laguntzen ustez ezkerrekoak diren alderdi politikoak eta Europako sozialismoa. Eta hori da Espainiako Bankua eskatzen ari zaiona Zapaterori. Gora kapitalismoaren birfundazioa! Hil dadila sozialismoa!

Juan Mari Arregi

Gotzon Barandiaranek Berrian esanak: “Egun jabea den Noticias taldeko buruek, Loiolako Herri Irratiko egoitza itxi, eta euskarazko programazioa are gehiago murriztuko dute. (...) Erabakia ekonomikoa izan bada, zergatik kendu dituzte euskarazko saioak? (...) Baina, Noticias taldekoak ez dira Gipuzkoako Foru Aldundia gobernatzen dutenen alderdi berekoak? (...) Eta horiek ez dira, ba, euskararen normalizaziora bideratutako aurrekontuetatik murriztutako dirutik Real Sociedad taldeari 1,2 milioi euro emango diotenak?”

Kepa Altonagak Garan esanak: “Momentu honetan ikuspegi bi daude. Bataren arabera, erabiltzaileek hizkera bat dute, eta hizkera horretatik abiatuta egin behar da egiteko dena. Beste ikuspegiak euskarak gauza ederrak egiteko dohai-nak badauzkala defenditzen du, eta edertasunari ematen dio lehentasuna. Nire iritzian, edertasuna baino lehenago zehaztasuna bilatu behar da prosa zientifikoan. Euskarazko testu batzuen akats nagusia zera da: euskarazkoa dela ematen duen arren, benetan ‘giglikoiz’ idatzita daudela. Horrelako testuak irakurri, eta ulertu duzula uste duzu, baina ez zaude seguru”.

Grezia atarian dugu

EUROPAKO BATASUNEAN zor publiko moduan dagoen euro bakoitzeko zor pribatua den beste euro bat ei dago (Paul de Grawe ekonomialaria, Soledad Gallegok joan den igandean aipatzen zuen *El País*-en). Kontua da Europako gobernuek sekulako dirutzak bideratu izan dituztela zor pribatu hori sostengatzera, bestela bankuak erabateko krisian sartuko zirelako eta honek ekonomia hondoratuko zuelako. Hala saldu digute. Diru publikoak atera zituen zulotik finantza merkatuak, modu horretan ekonomia erabateko saihestuz. Finantza merkatuen erregulazioa ezinbestekoa ei zen. Guztia gezurra. Ez da erregulaziorik eman, eta orain finantza merkatuek ez dute inongo errukirik zor publikoa duten estatuekin. Eta konfiantzak behera egiten du.

Konfiantzarik ez badago jai, krisia gertu da, hori bizitzako alor guztietan gertatzen da eta ekonomia ere hala dela ondo ikasi dugu azken bizpahiru urteotan. Eta zeinek banatzen du konfiantza? Besteak beste finantza merkatuek, estatuen zor ahalmena neurtzen duten kalifikazio agentziek. Eta hauek, estaturen baten zorra handia denean eta berau ordaintzeko arazoak izan ditzakeenean, konfiantza indizea jaisten diote eta estatu horrek konfiantza maila galtzen du finantza merkatuetan. Ondorioa: estatu horretan gutxien dutenek gerrikoa estutu beharko dute.

ESPAINIARI ere gerta dakioke hori, edo Portugal eta Irlandari. Akaso Italia berari ere bai. Apirilaren bukaeran Standard & Poor's-ek —arisku maila neurtzen duen agenzia horietakoa— Espainiaren kon-



ARIS MESSINIS

fiantza ahalmena jaitsi zuen eta Greziako beldurra barreiatu da zezenaren azalean, baita haren lparaldean ere, euskal lurretan alegia. Eta Gipuzkoan, adibidez, beldurra bada langabezia %9an dagoenean, pentsa zer izan behar duen %28 duen Kanarietan. Baina lasai, Espainia Grezia baino sendoago dago, diote agintariek ohi bezala, eta herritarrek sinetsi ere bai. Eta akaso hala izango da, baina bada konparaketak egiterik.

Greziak defizit publikoa %12,7tik %2,8ra jaitsi gura du bi urtetan. Horrek sutan jarri du helenoen lurraldea eta, gainera, inor gutxik uste du bete ahal izango duenik, ezta Europako Batasunetik mailegu gisa helduko zaizkion laguntzekin ere. Espainiak bere defizita %11,4tik %3ra jaitsi gura du 2012rako. Bale, ekonomialariek diote zor publikoa Grezian baino askoz txikiagoa dela Espainian eta, beraz, ez dela Grezian moduko arriskurik. Baina Greziako langabezia 2009aren bukaeran ez zen iristen %10era eta Espainiarena %20an zegoen. Tira, batek daki hango porrot ekonomikorik dagoen, baina argi dagoena da han ekindako erreformen gisakoak atarian direla hemen ere. Gastu publikoaren murrizketa itzel batetik (Elena Salgado ministroak datoen

bi urteetan Madrilgo Gobernuak, autonomiek eta udalek 15.000 milioi euroko murrizketak izango dituztela iragarri du) eta lan erreforma gogorra bestetik.

NEOLIBERALISMOAREN tesi zabaldua honakoa da: Grezia eta beste estatu hauek krisian baldin badaude, hori da gastu publiko handia eta —sindikatuak behartutako— lan merkatu zurrutana dutelako. Bada ez, ez behintzat EBko estatu aberatsenak baino gehiago. Konparazioan, orain finantza merkatuen miran dauden estatu hauek EBko aberatsenak baino askoz gastu publiko txikiagoa dute, enplegu publiko gutxiago eta soldata askoz eskasagoak. Krisi egoeak askoz gehiago du zerikusirik beste hiru eragile hauekin. Bat, lan errenten etengabeko jaitsiera (kapitalarenak neurririk gabe gora egin duen bitartean) honek erosketak ahalmen erreala txikitzen duela; bi, finantza krisiak ekarritako mailegu eza; eta hiru, berrikuntza eta formazioaren eskutik ekonomia birmoldatzeko gaitasunik eza.

EGIBARREN berbek, beraz, edozeinek egingo lukeena adierazten zuten: saldu behar duenak edonon saltzen du, baina bere ahalegina gehiago bideratzen du eroste ahalmen handiagoa dagoen lekuetara. Ahula da komunitate politikoa onura ekonomikoan oinarritzea, baina ekonomia eta ongizatea eragile garrantzitsuak dira eta, alde horretatik, Euskal Herria posizio onean dago Espainiatik aldentzearena erakargarri bihurtzeko.

Baina adi, Grezia ere hor dago eta, 150 lanpostu gutxiagorekin, Sakanan ate joka jada.

PELLO ZUBIRIA

Munduko Kopa: Hegoafrikak 1, FIFAk 3

Datorren ekainaren 11n hasi eta uztailaren 11raino Hegoafrikan burutuko da Joko Olinpikoekin batera munduko kirol ospakizun nagusia dena, Munduko Futbol Kopa. Uztailaren 12an hegoafrikarrak aurkituko dira etekinen zati txiki batekin eta arazo askoz gehiagorekin.

FIFA IZANEN DA IRABAZLE Hegoafrikako Munduko Futbol Kopan, eta galtzaileak herritar hegoafrikarrak. Galtzaile ez deus irabaziko ez dutelako, hilabete horretan mundu osoan 27.000 milioi ikustaldi izango dituzten partiduen inguruan sortutako diruaren zati bat Hego Afrikan geratuko baita. Baina bai galtzaile irabazien puskarik handiena atzerrira joango delako, FIFA erakundeak erabakita dauzkan esku eta saketetara, eta ordainetan urrutiko interesen arabera eraikitako azpiegitura ugariren arazoak kudeatzea geratuko zaiolako.

Egoitza Pretoria hirian daukan *Institute for Security of Studies* (ISS) honako goiburua erakusten du webgunean: “Ezagutzak askatzen du Afrika”. Gerra krimenez eta Afrikako beste hainbat arazoz egin dituen ikerketen aldamenean, ISSk apirilean plazaratu zuen Hego Afrikan jokatuiko den Munduko Kopari buruzko dossier aberatsa: *Player and Referee: Conflicting Interests and the 2010 FIFA World Cup* (Jokalari eta epaile, interes gatazkak FIFaren 2010eko Munduko Kopan).

PDF formatuan eskuragai den 248 orrialdeko txosten monografikoa ikerketan berezitutako kazetariak osatu dute eta sarrerako laburpena Colette Schulz Herzenberg zuzendariak idatzi du.

Schulz Herzenbergekin *mega-event* izendatzen ditu Munduko Kopa bezalakoak, mega-gertakizunak edo mega-ikuskitunak. Mundu mailan eragina dutenak, ikusleei bezala publizitateari eta eragin ekonomikoari dagokionez.

Mega-gertakizunok fenomeno ekonomikoak dira eta antolakizuna beren gain hartzen dituzten herrialdeek horietatik hazkunde ekonomikoa eta hirigintza mailako hobekuntzak espero dituztelako sartzen dira saltsan, epe laburrean turismoa gehitu, azpiegiturak hobetu eta lanpostuak ugarituko dituztelakoan. Hegoafrikako Turismo ministerioak kalkulatu du munduko kopa dela eta 2010ean bertaratuko diren turistek -330.000 eta 450.000 artean izan daitezke- utziko dituztela 15.600 milioi rand, ia 1.600 milioi euro.

Gisa honetako antolakizunen aldekoek nabarmentzen dute nazio antolatzailearen irudia hobetzen dutela munduan, naziotasuna sendotzen dutela eta, kasu zehatz honetan, *Afro-pesimismoa* gainditzen lagunduko duela. Aldiz, kritikoek auzitan jartzen dituzte ospakizunetarako eraikitzen diren azpiegituren etorkizuneko bideragarritasuna eta salatzen dute bertako agintariak inbertsioen lehentasunak atzerritarren menpe makurtzen dituztela.

Irudian Durban hirian Moses Mabhidaren (Hegoafrikako Alderdi Komunistaren buruzagi izan zenaren) omenez eraikitako estadioa, obrak hasi aurretik ordenagailuz apainduta. Futbol zelaiak diseinuzko uztai polita erakusten du gainetik, agintariak “Itxaropenaren arkua” izendatu dutena baina FIFaren koparekiko kritikoek “Zorrenen uztarrria” bataiatu dutena. Beste kirol zelai batzuekin gertatu denaren alderantziz (Lurmutur Hiriko Green Point, Gauteng-eko Futbolaren Hiria eta abar) Moses Mabhida estadioa inork ez du lotu oraindik agintari politikoaren eta eraikuntza enpresen arteko ustelkeriarekin, baina salatzen dute hiri-ko jenderik txiroenak bizi ziren eremuan lehendik zegoena handitzearen ordeztasuna izana etorkizunerako zor handiak utziko dituen eraikuntza arranditsua.

Hegoafrikan azken urteotan Munduko Kopa dela-eta 9.000 milioi rand gastatu ditu gobernuak errepideak hobetu, Gautrain tren lasterra eraiki, aireportuak egokitu eta autobus sistema zaharberritzen. Ia beste hainbeste xahutu du bost estadio berri eraikitzen eta beste bost goitik behera egokitzen. Horiek osatuko dute ondoko urteetarako Hegoafrikari utzi herentzia.

FIFA, jokatzailerak eta erreferi

Kirol eta ikuskizun mailako gertakizunok agintarien eta indar ekonomikoen artean ustelkeria zabaltzeko aukera handiak sortzen dituzte, hiru faktorerengatik.

Hasteko dago azpiegiturretan, komunikazioan, segurtasunean, organizazioan, boluntarioen mobilizazioan eta beste egin beharreko inbertsioen neurri itzelezkoa. Dirutza eskerga hauek gobernu zentralaz gain eskualde mailako aginteei eta udalek pagatu behar dituzte. Kontratuen kosteak neurtu eta alderatzen erraza ez denez, diruak mugitu behar dituztenek ustelkeriarako arriskua eskueran daukate.

Bigarrenik, dirutza handiok oso epe laburretan erabaki eta gastatu behar dira, FIFaren egutegiak errukirik ez duelako, eskupeko eta gisa guztietako eroskeriak ugarituz.

Hirugarrenik, horrelako kirol



antolakuntzetako inbertsioen zati handiena eraikuntzarako da eta ISS erakundeak nabarmen du eraikuntzan ustelkeria oso zabalduta dagoela. “Munduan ustelduena dagoen ekonomia atala eraikuntzarena eta herrilana dela argitu du Transparency International erakundeak Eroskeriaren Ordaintzaileen 2002ko Aurkibidean”. *Bribe Payers Index 2002* ikerlanaren arabera azpiegiturretan dagoen ustelkeriak urtean 3.200 milioi dolar mugitzen du.

Ustelkeria ugaritzeko arriskua are handiagoa da gastuen katean era askotako agenteak daudelako sartuta. Enpresei dagokienez, eraikuntzako korporazio handiek esku-ratzen dituzte kontratuak, horiek martxan jartzea azpikontrata nugu-

sien esku uzten dute, eta hauek azpi-azpikontratekin lotzen dituzte. Erabakitzaileen aldetik, Hegoafrikako gobernuaren ministerioak daude, horiekin batera Batzorde Antolatzailea, barnean gobernua, enpresak eta sindikatuak dituen, hiri nagusiek ere zeresan handia dute, azpibatzaileak, eta beste.

Hego Afrikan denborarekin azal daitezkeen eskandaluen aurrekari-tzat, ISSko zuzendariak gogora dakar 2006ko Munduko Kopan gertatutako bat, Municheko Allianz Stadiumari dagokiona. TSV 1860 München ekipoaren presidente Karl-Heinz Wildsmoser 2004an auziperatu zuten iruzurra, ustelkeria eta zergak ostea leporatuta, estadio-aren eraikuntzan 2,8 milioi euro bereganatu zituelakoan. Lau urte eta

erdiko espetxe zigorra jaso zuen.

Baina eraikuntza eta herrilane-kin lotutako edozein negoziok ustelke-riarako omen daukan joeraz gain, ISSren ikerlanak bereziki nabar-mendu du FIFA erakundearen gar-dentasunik eza eta ustelkeria frogatua. Dosierraren laugarren atala Andrew Jennings kazetari ingelesak idatzi du, 2006an *Foul! The Secret World of FIFA: Bribes, Vote-Rigging and Ticket Scandals* (FIFAren histo-ria ezkutua: eroskeriak, boto iruzu-rrak eta sarreraren eskandaluak).

Jenningsen atalak izenburutzat darama *How FIFA corruption empowers global capital* (Nola FIFAren ustelkeriak laguntzen dion mundu mailako kapitalari). Horren arabera FIFA antolatuta dago buruzagitzan dauzkan kargudunak aberasteko eta horiek aginteak betirakotzeko moduan.

Gardentasunik ezagatik eta kan-poko kontrol faltagatik, mugarik gabe lantzen ditu FIFAk nepotis-moa eta lagunenganako faboritis-moa. Aldi berean, hain indartsua delarik, neurritz gainera indarra dauka berak antolatutako kirol ger-takizunak etxean hartzen dituzten herrialdeetako agintarien gainean. Ez da harritzekoa horrelakoak pla-zaratzten dituen Andrew Jennings-ek FIFAren zerikusia duen edo-zertan sarrera debekaturik edukitzea.

Hegoafrikako Munduko Kopatik herritarroi oroimenean dozena bat gol mirarizko eta bizpahiru jokaldi harrigarri geratuko zaizkigu. Argiak eta lilura itzalitakoan, hego-afrikarrei estadioak luzaz ordaindu beharra. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Krisialdiari aurre egiteko bide okerrak




raindik krisialdi ekonomikoan murgildurik gaude. Bete-betea, gainera. Hala ere, zenbait zantzu badaude aurreikusteko Europako zenbait estatuk eta AEBek –beraz, munduko bi lokomotora nagusienetakoe– hazkunderako bidea hartu dutela, nahiz eta Txinako ekonomiak daraman abiadurarekin ezin daitezkeen alderatu.

Gure artean, ezin daiteke esan Espainiako ekonomia bide onetik doanik. Izan ere, lehen, oparoaldian, gauzak oker egin ziren: ondarearen gaineko zerga bertan behera utzi eta urte batzuk lehenago, jarduera ekonomikoaren gaineko zerga asko mugatu zen. Eta neurri horiek ezin daitezke hartu ekonomia bizkorraldian dagoenean, urte horietan egin zen bezala. Horrela ez bazen egin, administrazio publikoek, udalak barne, kontu hobeagoak izango zituzten.

Orain, krisialdian bete-betea gaudenean, Balio Erantsiaren gaineko Zerga igo-tzeak, Stiglitz Nobel Saridunak dioen bezala, ziurrenik, motelaldia luzatzea ekarriko du. Eta neurri hori hartu du Gobernu zentralak datorren uztailaren hasieran indarrean sartzeko: BEZa ehuneko 16tik 18ra igo. Ondorioz, bat-batean kontsumo maila apaldu egingo da eta errenta urriak dituztenek gehiago pairatuko dute, zerga hau atzerakorra baita. Gainera, gerta daiteke zerga horren etekinak murriztea, kontsumo-maila urrituko delako, nahiz eta Gobernuak bestelakoa itxaro duen.

Finantza erakundeek eragindako krisialdi hau azaldu zenean, berauei emandako dirutzagatik aurpegia garbitzeko G-20koek, gogorki kritikatu zituzten erakunde horietako zuzendaritzak, baita paradisu fiskalak ere. Horietako batzuek zioten “kapitalismoa berrasmatu” egin behar zela. Baina denbora joan ahala, ideia horiek ahaztu egin dira eta garapenerako betiko ereduari heldu zaio: eraikuntza, autogintza, armagintza, eta finantza erakundeentzat ez zigorrik eta apenas zerga berezirik edo erregulaziorik. Beraz, berehala izango dugu hurrengo krisialdia ate joka.



MADDI SORO

Bestalde, Espainiako ekonomia erabat zorpetuta dago. Familiek beren bizi mailari eutsi ahal izan diote eta horretarako zorpetu egin dira; enpresak berdin, batik bat eraikuntzakoak, baita finantza erakundeak ere; eta administrazio publikoak abiadura bizian zorpetzen ari dira, aurrekontuak finantzatzeko beste erremediorik ez zaielako geratzen. Gainera, zorpetzeak interesak ordaintzea dakar eta zenbat eta zorpetuagoa egon, erakunde publikoek interes-tasa garaia goak ordaindu behar dituzte, are gehiago nazioarteko kalifikazioa, Espainiako Estatua-rentzat, EAE eta Nafarroarentzat, okertu ondoren.

Halaber, egungo defizit publikoa ehuneko 11 ingurukoa da eta defizit horrekin azaltzen dira arazoak EBrekin, honek oso zurrunkokatzen duelako zifra hori ehuneko 3tik gora

igotzen denean eta geure kasuan oso garaia da. Egoera hau, errealitatetik urrun bizi diren euro-eremuko agintarientzat, bekatuan bizitzea bezala da.

Euro-eremuan bizi garenontzat moneta bakarra, euroa alegia, indarren egotea, ustez, onuragarria izan da. Baina Espainiako Estatuko ekonomia ahularentzat, itxurazko sendotasuna izan da. Izan ere, ia gauetik goizera herrialde aberatsenen parean bizitzen hasi ginen eta horrek ezin du luze iraun, ekonomia batek oinarri ahulak baldin baditu behintzat. Azkenean,

ahuleziak azaldu dira ekonomia hau ez delako lehiakor eta lehiakortasuna irabazi nahi bada, moneta devaluatzeko tresnarik gabe aurkitu gara. Gabezia hau dela eta, langileen soldatak murriztu nahi dira lehiakor bihurtzeko, kapitalaren mozkinekin sartzeko kemenik ez dagoelako.

Guztiau konpontzeko, berriro, eraikuntzari heldu zaio, adibidez, Lisboako Estrategia 2000 garatu da, kalitatezko turismoa indartuz, nekazaritza berria sustatu ordez. Beraz, bide okerrera hartu da eta hortik etorkizun iluna aurreikusten da. ■

« Berriro, eraikuntzari heldu zaio,

adibidez, Lisboako Estrategia

2000 garatu da, kalitatezko turismoa

indartuz, nekazaritza berria

sustatu ordez. Beraz, bide


okerrena hartu da eta

hortik etorkizun

iluna aurreikusten da

ASTE HONETAKO

zozketak



Ellauri Hotela

Asteburu pasa
2 lagunentzat

Zeanuri BIZKAIA

www.ellaurihotela.com

1



Chillida-Leku Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Jauregi auzoa, 66
Hernani GIPUZKOA

www.museochillidaleku.com

2



Zientziaren kutxagunea

4 harpidedunentzat
bina sarrera

ikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.miramion.org

3



Bilboko Euskal Museoa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo, BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

4



Pintxatu

3 Errezeta liburu / CD
opari

Abuztuaren 31 kalea, 31
Donostia GIPUZKOA

www.talka.org
www.afuegonegro.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2228. Argia)

IRIARTE JAUREGIA

• Miren Olabarria Arana (Bergara)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

• Teresa Alonso Herreros (Gasteiz)
• Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)
• Joseba Berriozabal Urkiza (Zumaia)
• Arabako Ikastolen Elkarte (Gasteiz)

TXURI-URDIN

• Jose Luis Zubiaurre Ulazia (Mendaro)
• Karmelo Busturia Jimeno (Donostia)

LAGUN ARMATUA

• Arantza Egibar Arieta-Araunabeña (Bergara)
• Alaitz Katarain Azaldegi (Idiazabal)
• Joxe Mari Las Goenaga (Zarautz)
• Iñaki Osoro Otadui (Eibar)
• Iñaki Gabilondo Millet (Leintz-Gatzaga)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

• Julen Gorostizaga Elu (Arrakundiaga)
• Leire Zelaia Bikandi (Etxebarria)
• Izaskun Elizburu Urkizu (Zarautz)
• Unai Dorronsoro Zeberio (Bilbo)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



* 7 urtetik gorakoentzat.

25
€

Prezioa



Harpidedun prezioa

Hartu zure ardi erromesa
eta ibilbidea jarraituz...
segi Jakue bidean beeeera.



ArdiBidez

mahai jolasa

ESKAERAK: Tel. 943 371 545 • www.argia.com • denda@argia.com